


Arrasate PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urriaren 4a / 600. zenbakia



600. ZENBAKIA

600 astean jaso dute herritarrek
ARRASATE PRESS etxean



ORAIN ETA HEMEN: **MIAKETAK IBARREAN/6 • JAIA: MARITXU KAJOI/33-37**



RENAULT

Renault MEGANE berria

Kalitate handiko
ekipamendua



Segurtasun maila
hobea



Diseinu
bereizgarria



Laster Arrasaten...

MECA


Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA**. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE**. Tel.: 943 71 24 72



Zapatuetan zabalk


KALEINKESTA/ Zela ikusten dozu Maritxu Kajoi jaixe? Hobera ala txarrerera doie?



MIGUEL HERNÁNDEZ
Kale garbitzaillie



MARI CARMEN SEBASTIÁN
Fotografue



IKER SAMPEDRO
Komisiñokue



JESUS MARI IBABE
Tabernarixie



MARIBEL CARBALLARES
Pelukerue



ROSARITO ZEZIAGA
Saltzaillie

Oso ondo, baiñe ez dator lehen beste jente. Goixien, behintzet, ez da horrenbeste ikusten. Lehen, autobusak etortzen zien. Guk lan handixe eukiko dogu, 06:00retatik 12:00xetara, behintzet.

Haundiketan doie jaixe; jentiek argazki gehixago egitten dittu, eta argazkixek egitteko eskaerie be haundixague da urtero. Arratsaldetik gabera arte ibiltten gare lanien.


Antzera jarraiketan dau. Jai kuriosue danez, kanpotik jente mordue etortenda, eta horrek bere alde txarra be badauko. Herrikuiek egune gehixago aprobetxetan hasi die.

Geruago eta jente gehixago etortenda eta masifikaziñue dago. Jentiek diru mordue gastetan dau, larregi, baiñe horren alde ona edertasune da. Egun horretan danok guapo urtetan dogu.

Jaixe betiko moduen dago, ez da askorik aldatu. Gabeko erropekin janztie eta lagunekin afaittera juetie oso politte da. Jentiek diru larregi gastetan dau, baiñe merezi dau, oso politte da.

Gauza danetan hobetu egin da. Lehen, erropa zaharrak ibiltten zien eta oin, erropa elegantiauek, modauek. Lehen, jentiek larregi edaten euen, eta oin, jente gehixago zainketan da.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK BIDEGURUTZEA HOBETU DUTE Mondragon hotelaren pareko bidegurutzean istripu asko izan dira iraganen. Bidegurutze horrek noranzko asko ditu, eta, horren ondorioz, nahaste handiak eragiten ditu. Errepidea margotu dute eta, zelanbait, arazoa saihestu dute, baina oraindik batzuei preferentzia ematen dien seinalearen falta sumatzen da. Komeniko litzateke halakoren bat jartzea!

ETABARRUAN

ORAIN ETA HEMEN /6

KIROLA/12

KULTURA /17

Emakumeen aldekoak

Udaleko Emakume Sailak emakumeen aldeko ikastaroak eta beka bat aurkeztu zituen.

Kenci lanean hasiko da

Zapatuan, Kenci Arrasate saskibaloi taldeak denboraldia hasiko du, Askartzaren kontra.

Literatura Solasaldiak

Udal Liburutegiak, bigarren aldiz, Literatura Solasaldiak antolatu ditu; hilean behin.

ASTEKO DATUA

600

**ZENBAKI ATERA DITU
ARRASATE PRESSEK**

Hori da aste honetako datu proposena. Gaur, arrasatearrok seihungarren aldiz jaso dugu ARRASATE PRESS aldizkaria etxean. Ez da zenbaki makala, ez horixe, eta poztekoa da.

BESTEKE SANA

ARRASATE PRESS ikusten dut sendo, zindo eta berrizale. Hori guztia ia

hamalau urte igaro eta seihun ale kaleratu eta gero. Asmatu du egokitzen garai berrietara. Eta nik ikusten dut lehen baino osoago, astero bailararen berri eman eta Aramaio hurbiltzen digulako. Eta hori guztia lehen besteko informazio kopurua Arrasateren gainean. Konturatzen naiz jende gaztea ere ari dela idazten ARRASATE PRESSEN, merkatariek gogor segitzen dutela publizitatea egiten orri hauetan, eta gustatzen zaidala. Zorionak eta eutsi goiar!!

JOXE ARANZABAL

HERRITARREN BERBAK/ Antxon Mendizabal



Ikasi dezagun orain. Orain da unea.

Une argigarriak bizitzen ari gara. Tiranoek, ezkutatzen duten zapalkuntza agerian utzi dute. Hemengo erresumak eta *demokrata* izena erabiltzen duten Leszista horiek, ikaragarri argitu digute paisaia politikoa. Egiaren eguzkiak, gezur sozialarekin osaturiko laino eta hodei guztiak ezabatu ditu. Hor dugu, *España eterna* horren benetako izaera, orain dagoena, baina betidanik moztortuta egon dena, Estatuko izaera nazional anitza sustraitik ukatzen duena, lotsagabeko menperakuntza, inperialismoa eta arrazakeria ezartzen duena. Espainiar xenofobia.

Hor dugu, gure aurrean, *provincias vascongadas*-en benetako izaera. Seihun mila boto eskuratu ondoren, Ibarretzek hitz emandako "mugagabeko elkarrizketa" eta Euskal Herriko arazoari proposatutako irtenbide demokratiko eta politikoa iruzur sozial handia izan da. Jadanik Ibarretxe

herritarrek aukeratutako Espainiako bigarren gobernadore zibila da. Euskal herritarrek ezarritako legeria beharrea, Espainiako nazionalismo inperialistak inposatutako legeria ezartzeko izendatua izan den pertsona. Ibarretzek ugazaben legeria ezarri behar du. Morroia morroia da, eta horretarako dago egina. Morroien bakea, duintasun gabeko sumisio eta isiltasuna. Sistema autonomistari moztorroa jausi zaio. Neofrankismoan gaude. Betidanik egon da frankismoa, "moztorro demokrati-

koaren" atzean kolaboratzaile berriak izan ditu, eta sistemaren muinean egoten jarraitzen du.

Ikusi dezagun errealitatea. Aztertu eta eztabaidatu dezagun orain. Laster, botere mediatikoe eta ordaindutako zenbait intelektualek aipatutako moztorrodunak demokrata, pazifista eta ez-nazionalista bihurtuko dituzte, eta euren benetako izaera guri leporatuko digute. Ikasi dezagun orain. Orain da unea.

"Ibarretzek ugazaben legeria ezarri du, eta sistema autonomistari moztorroa jausi zaio"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 11

Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gáinzarain
Ane Berebizar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komenikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 4**
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39
- ZAPATUA, 5**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA 6**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 7**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 8**
Español, Araba etorb. 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 9**
Azkoaga, Ferrenias 1. 943 79 15 15
- EGUENA, 10**
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIE TXEAK**
- Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
- Igualatorjoa. 943 71 26 91
- Santa Agedako Ospitalea:
- Gizonak. 943 79 39 00
- Emakumeak. 943 79 44 11
- Buru-osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
- SOS Delak. 112
- Gurutze Gorria. 943 76 55 76
- DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
- Guardiako medikua. 943 46 11 11
- Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
- Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
- Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
- Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
- Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
- Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**
- Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
- Udal taldea. 943 79 09 00
- Udal taldeko suhiltzaleburua. 943 79 20 72
- Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
- Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
- Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
- Gasa. 900 40 05 23
- 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
- Taxiak. 943 79 12 22
- PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
- Iturbide egoitza. 943 79 72 11
- Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**
- Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parroikia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskarak) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskarak) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskarak) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskarak) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskarak) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parroikia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskarak) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

TXERTATZE KANPAINA
Joan den astetik urriaren 31ra arte, anbulatorioan eta herriko zenbait auzotan gripearen aurkako txertoa jarriko dute.

1949AN JAIOTAKOAK
Urriaren 19an, 1949an jaiotakoek urteroko bilkura egingo dute. 13:00etan, San Frantzisko elizan meza entzungo dute. Gero, Musakola Hostalera bazkaltzera joango dira. Zabaleta eta Lore lurrindegietan izena eman, hogeita hamar euro ordainduta.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Joan den astean hasi zen Amaia Udal Antzokiko eguenetako ohiko zinekluba. Urriaren 10ean, 21:30ean, Dogma eskolako *Mifune* filma emango dute.

LITERATURA SOLASALDIAK
Udal Liburutegiak Literatura Solasaldiak antolatu ditu. Hilean behin egingo dituzte, batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz. Gaur, egubakoitza, da izena emateko azkeneko eguna.

ASTIGARRAREKIN AZKOITIRA
Domekan Azkoitira meza entzuterako joateko autobusa antolatu dute. 10:00etan irtengo da, Garibaitik, eta 13:30ean bueltatuko da. Sei euro ordaindu behar dira.

AEDren AGENDA

'HIRU HAUNDIXEK'
AEDk azaroaren 1ean, 2an eta 3an, *Hiru haundixek hiru egunetan* mendi irteera antolatu du. Interesatuak jo AEDra, lehenik eta behin, informazio gehiagoren bila.

ZAHARBERRIRAKO ERAGILEA
Zaharberri lan egiteko eragilea behar dute. Bidali curriculum, lehenik eta behin, AEDra.

URBANOEN ORDUTEGIA


Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.I. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTE ARRASATEN

479 lagun euskaltegian euskara ikasten

AEK-Erdi Euskaltegiko eta Udal Euskaltegiko datuen arabera, orain dela hamar urte Arrasaten euskara ikasten ari zirenak 479 lagun ziren. Horiez gainera, ordu-tegira eta erritmora egokitu ezinda, izena eman bai baina taldeetan sartu barik beste 45 lagun zeuden itxaroten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Betexkel"

Betazal erdi eroriak dituen pertsona.
- *Betexkela ola daukana, ola beera, japonesen da moduan.*
Begi erreka eta tristeal dituen ere bai.
- *Ezton ezautzen?*
Alako ankaluze betexkel bat.



HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 25	3°C
MAXIMOA Domeka, 29	29°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	4,7 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 25	19°C 3°C - l/m²
Eguena, 26	21°C 4°C - l/m²
Egubakoitza, 27	21°C 6°C - l/m²
Zapatua, 28	27°C 6°C - l/m²
Domeka, 29	29°C 8°C - l/m²
Astelehena, 30	25°C 10°C 1,9 l/m²
Martitzena, 1	20°C 14°C 2,8 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak


ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Euskal modaren eragina munduan

Datorren martitzenean, goizeko hamar eta erdietan, euskal modaz arituko da Sergio Hernando. Euskal modak Estatuan eta munduan zein arrakasta duen kontatuko digu Sergiok. Gaur egun, Ameriketako Estatu Batuetan ere saltzen dituzte jostun euskaldunen arropak.

Eguaztenean, berriz, Eusebio Inarra arrasatearrak herriko hainbat bitxikeria kontatuko dizkigu. Astean behin, garai bateko kontuak gogoratuko ditu Eusebiok.



Maritxu Kajoi Eguneko giroa zuzenean, Arrasate Irratiaren bitartez

Aurten ere Arrasate Irratia herriko plazan izango da Maritxu Kajoi Egunean. Zuzeneko emanaldian, 20:00etatik aurrera herriko plazan zein giro dagoen kontatuko dizuegu. Etxean edo irtetear bazaudete, piztu herriko irratia!

FERNANDO IARTZA SUKALDARIAREKIN
Zapatuan eta domekan, 11:00etan, Fernando Iartza sukaldariari egindako elkarrizketa entzuteko aukera izango duzue. Fernando oñatiarra

da eta Aramaioko Iturrieta sagardotegian dabil lanean. Oso ezaguna da, garai baten Radio Euskadin errezetak ematen ibili zen-eta. Fernandok Bartzelonan zeukan jatetxea, eta Egipton eta Mallorcan ere egin zuen lan. Juan Carlos Espainiako erregearendako eta Michael Douglas aktorearendako ere janariak prestatu ditu. Beste elkarrizketarik ere izango da: Asisko Urmenetak herriko komiki ikastaroa emango du, eta geurean izan da

ASTEABIHITZETAN

Hirugarren adinekoak Interneten

KZ guneak hirugarren adinekoei zuzendutako Internet ikastaroak antolatu ditu Arrasaten. Helburuetako bat da adineko jendeak informatikari dion beldurra zelanbait kentzea. Eskolak asteleheneetik egubakoitzera artekoak izango dira, guztira, hamar ordu. Hortik aurrera, gura duenarendako izango dira maila altuagoko ikastaroak. Guztiak doan izango dira.

Hori guztia joan den eguenean azaldu zuten, Abaroan. Eta gaineratu zuten laster ordenagailu batzuk ipiniko dituztela Abaroan.

Telebista kable bidez

Cerrajerako etxebizitza berrietako bizilagunek telebista kable bidez ikusten dute. Hori, berez, ez da albiste. Bai, ordea, kable bidezko zerbitzu hori erabiltzen duten Arrasateko lehenengo bizilagunak direla. Euskaltelen bitartez lortu dute hori. Horrez gain, Cable Modem izeneko zerbitzua ere eskuratuko dute laster. Interneterako linea berezi antzeko bat da hori. Eta horrekin Internet erabili ahal izango dute, arinago eta telefonoaren linea okupatu barik, orain arte gertatzen zen moduan.

Gobernu batzordearen zenbait erabaki

Oraingo asteko Gobernu batzordeak hartutako erabakien artean, jakinarazi dute astelehenean osoko bilkura izango dela. Batzar eguna aldatu arren, bilkura ohikoa izango da.

Bestalde, batzordeak landutako bestelako gaien artean, *Kooperatibismoa eta Euskara* izeneko libururako 3.000 euroko laguntza ematea erabaki zuten; eta 2003rako ur eta estolderiaren tasak aldatzeko proposamena ere aztertu zuten batzordeak. Azken horren gainean plan bat egitea erabaki zuten Gobernu batzordeak.



EAREN URTEURRENEKO EKIMENAK

Arrasateko EAren XVI. urteurrenaren ospakizunera Begoña Errazti eta Carlos Garaikoetxea etorri ziren, besteak beste. Ekitaldien artean, mitin politikoa izan zen herrian, eta Begoña Erraztik, esaterako, ETARI desegiteko eskatu zion, alderdi politikoei lan egin dezaten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Ospakizunekin gatoz!

Aspaldian Euskal Herrian ez da giro. Kontu triste larregi gertatzen ari da. Arrasate ez da salbuespena, eta aurreko asteburuan, ezohiko hainbat gertaera jazo ziren: Gudari Egunean, Ertzaintzak manifestazioa bortizki desegin zuten eta ondoren kale istiluak izan ziren; Segiko kamiseta bat janzteagatik Ertzaintzak gazte bat atxilo-

tu zuen; Ertzaintzak gazte txeko Batzarreko hamabost gazte arakatu eta iraindu zituen; eta Guardia Zibilak ia bost ordu igaro zituen herriko bidaia agentzia bat miatzen. Gertaera horiek guztiak erakusten dute arazo larria dagoela eta zelanbait konpondu egin beharko dela. Ea, bada, hasten garen!

ARRASATE PRESS,
ordea, jai usainarekin dator.

Izan ere, gaur, Maritxu Kajoi Eguna da eta aldizkaria ere, betiko legez, dotore-dotore jantzi dugu, noski. Horrez gain, esku artean duzuen hau ARRASATE PRESSen seihungarren alea ere bada. Garaiko auto bat aukeratu beharrean, guk Seiscientos-a hartu dugu, dotoretasun txikiagoa daukagulako eta poliki-poliki asteroko lanarekin kopuru horretaraino heldu garelako.

Ondo ospatu Maritxu Kajoi eta zaindu gorputza!

ASTEKO IRUDIA



JON BEREZIBAR

BEDERATZIURRENAK IRAGARRI ZUEN MARITXUREN ETORRERA

Nobenaixuek iragartzen du Maritxu Kajoiaren gertutasuna. Eta aurten ere hala izan da. Lehengo ohituretara bueltatuz, zapatuan ospatu zuten Bederatziurrena edo Nobenaixue. Hortik aurrera, atzeraka kontatzeko garaia iritsi da: jantziei azken ukituak eman, ondo dotore irteteko; ile apaindegirako txan-

dak hartu (nahiz eta gehienek hori dezente lehenago egin); jatetxeei ere azken deiak egin... Eta egubakoitzean... Ezin da deskribatu zer izaten den egubakoitzeko hori. Jai polita, eta inork galtzen ez duena, hortaz, giroa ere berezia izaten da Arrasateko kaleetan. Beste urtebetez, hala izan dadila! /U.M.

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erlebedun hizkiak


Miaketak eta kale istiluak izan dira asteburuan Arrasaten

UBANE MADERA

Joan den asteburua ez zen oso lasaia izan Arrasaten. Egubakoitzean, Gudari Eguna zela-eta, zeuden ospakizunak galarazi zituen Ertzaintzak; gero, kale istiluak izan ziren. Zapatuan, berriz, Guardia Zibilak Ecuador Bidaietako bulegoa miatu zuen.

Zapatuan hasi eta martitzenean itxi duten Espainiako polizia-operazioaren barruan, zapatuan bertan, Guardia Zibila Arrasaten eta Eskoriatzan izan zen miaketak egiten. Arrasaten Ecuador Bidaiak agentziak Otolara kalean duen bulegoa miatu zuten. 20:15ak inguruan, patruila bi iritsi ziren, eta agentziako kristalezko atea apurtu zuten; agentziaren aurreko espaloia ere moztu egin zuten. Gauerdira arte agentzia miatzeko epailearen baimenaren zain izan ziren. Irtsi zen hura, eta 00:45 inguruan hasi zuten miaketa, eta ordu erdi geroago kalean ziren. Ecuador agentziako langileek esandakoaren arabera, ingurua miatu bai, baina ez zuten ezer eraman. Are gehiago, astelehen arratsaldean bertan, Guardia Zibilak ipinitako zigilua kendu, apurtutako kristala konpondu eta agentzia zabaldu zuten.

ESKORIATZAN, ARRASATEARRAREN ETXEA
Bestalde, ordu berean, Eskoriatzako Aingeru ibiltokian etxebizitza bat miatu zuten. Han ere 20:00etatik aurrera izan ziren. ARRASATE PRESSEk lortutako informazioaren arabera, etxearen



20:30etik 01:30era arte izan zen Guardia Zibila Ecuador Bidaiak-en bulegoan.

jabea, R.E.C. arrasatearra, han ez zegoenez, atea botata sartu zen polizia barrura. Gauerdian heldu zen epailea, eta haren aurrean egin zuten miaketa. Lekukoek esandakoaren arabera, liburuak, zenbait dokumentu eta material informatikoa eraman zuten. Goizaldeko hirurak aldera arte izan ziren etxebizitza miatzen. Horrez gainera, azken orduan, Ertzaintza ere agertu zen Eskoriatzan. Edozelan ere, ez Arrasaten ez Eskoriatzan ez dute inor atxilotu eta guri emandako informazioaren arabera ez dago inoren kontrako errekerimendurik.

KALE ISTILUAK

Bestalde, egubakoitzean, kale istiluak izan ziren Arrasaten. Gudari Eguna zen, eta ekimenak zeu-

den antolatuta Arrasaten. Baina manifestazioa irten eta gero, Ertzaintzak manifestazioa desegin zuen; horren ostean hasi ziren kale istiluak. Udaltzaingoak emandako datuen arabera, besteak beste, Munarren, Zarugalde 33a inguruan, kamioi bat gurutzatu zuten, eta inguruko edukiontzi gehienak bota zituzten.

Bestalde, eta Ertzaintzarekin lotuta, herriko Gazte Asanbladakoek salaketa-gutuna bidali dute komunikabideetara. Kontatu dutenez, zapatuan, Altamirako lokalera zoazela, Ertzaintzaren bi furgoneta iritsi ziren, gazteak geratu eta banan-banan identifikatu eta arakatu zituzten, euren esanetan, "modu zakarrear". Horrez gain, irainak eta mehatxuak ere esan zieten salatu dute.



Beste azterketa bat egingo dute Fagor Ederlanen

U.M.

Legea bete arren, jasotako salaketak direla-eta, Fagor Ederlanek lantegiak botatzen dituen emisioen kutsadura maila berriro ere neurtzea erabaki du.

Hala adierazi digu Inmaculada Rodríguez, Ederlaneko Irudi eta Komunikazio arduradunak. Behin eta berriro nabarmendu gura izan du Eusko Jaurlaritzaren beharrezko baimen guztiak dituela Fagorrek Urribarrin duen lantegiak; eta legeak esaten duen mailarekin konparatuz gero, dezente azpitik dagoela Fagor Ederlan. Hain zuzen ere, eta Inmaculada Rodríguez jakinarazi digun moduan, legearen maila

baino %86 beherago daude Fagor Ederlanen emisioak. Gogorazi digu, era berean, joan den urtariletik hona, beste hiru bider neurtu dituztela emisioak, eta hiruretako emaitzak negatiboak izan direla.

BESTE NEURKETA BAT

Edozelan ere, hasieran esan dugun moduan, beste neurketa bat egitea erabaki dute Fagorrek ordezkariek, zalantzak argitzeko. Gainera, aurki egingo dute neurketa hori.

Era berean, lantegiko ordezkariek adierazi digu ingurumenarekin lotuta Fagorrek duen planaren barruan, etengabe ari direla taldeko lantegiek sortzen duten zikinkeria txikitzeko ahalgintetan.

LABUR

Legargainen oinezkoendako pasabidea egitea onartu du Gobernu batzordeak

Legargaineko auzotarrek Udalari eskatu zioten, besteak beste, Gernika oinezkoen zumardia eta Legargain kalea lotuko dituen bide berria egiteko, oinezkoendako. Udalak onartu egin du proposamena. Hain zuzen ere, Legargain kalea, Gipuzkoa etorbidea eta Gernika oinezkoen zumardia lotzeko oinezkoendako pasabidea egitea onartu du. Hala jakinarazi dute oraingo asteko Gobernu batzordean. Eta gaineratu dute bide hori abendu hasiera baino lehen hasiko direla egiten.

Bestalde, laster hasiko dira auzo bereko Casa Hermoso izeneko eraikina botatzen. Bitxia izango da, besteak beste, erlategi bat dagoelako han.

Zarataren kontrako ekintzekin aurrera segituko du Udalak

Zarataren kontrako ekintzen barruan, iaz, Arrasateko egoeraren gaineko oinarritzko diagnostikoa egin zuen Udalak. Autoen joan-etorria, industria eta gaueko zaratak hartu zituen kontuan. Orain, eta datu horiek esku artean izanda, zarataren mapa bat egingo dute, eta zaratak kudeatzeko sistema ere ezarriko dute. Horren arabera, hementik aurrera posible izango da jakitea, adibidez, industrialde berritua eginez gero, han sortuko den zaratak zein eragin izango duen inguruko eremuan. Hori izango da zarataren kontrako ekintzen bigarren fasea. 24.000 euroko aurrekontua du Udalak horretarako eta AAC izeneko enpresari adjudikatu dio lana. Edozelan ere, aurrera begira, ekintzen beste fase batzuk egiteko geratzen dira.

Hiru mila euroko beka bat eta hiru ikastaro, emakumeendako

U.M.

Gizonen eta emakumeen artean aukera berdintasuna bultzatzeko ekimenak jarri ditu abian Arrasateko Udalak. Besteak beste, hiru ikastaro eta, emakumeen bizitza publikoa indartu guran, 3.000 euroko beka sortu dute, emakumeendakoa.

Udaleko Emakume Sailak prentsaurrekoan aurkeztu zituen urte honetarako dituen zenbait asmo. Han izan ziren saileko ardurduna, Utzune Urrizalki, eta Maite Barreña, saileko teknikaria. Biek hala biek nabarmendu zuten Emakume Sailaren helburu nagusia emakumezkoen eta gizonzkoen arteko aukera berdintasunaren alde lan egitea dela. Eta hori bultzatzeko, batetik, hiru ikastaro antolatu dituzte. Emakumeei zuzendutakoak dira eta urrian hasiko dira hirurak. Lite-

ratura ikastaroa dago, adibidez; maiatzera artekoa, euskaraz zein gaztelaniaz, eta doan. Liburutegiarekin batera antolatu dute.

Bestalde, autoestimua lantzeko eta Tai Chi antzeko gimnasia lasaia egiteko beste ikastaro bat izango da abendura arte. Eta, urrian hiru egunez (10, 14 eta 17) komiki ikastaroa, Asisko Urmenetaren gidaritzapean. Komikien ikastaroan leku mugatuak daude, hortaz, interesatuok adi ibili beharko duzue.

3.000 EUROKO BEKA

Baina, duda barik, Emakume Sailaren ekimenik aipagarriena 3.000 euroko beka da. Hori ere emakumeendakoa. Bereziki, emakumeen bizitza publikoa indartzea du helburu. Maite Barreñaren esanetan, "helburua da emakumei eskaintzea ahal den aukera gehien euren dituzten asmoak, proiektuak, ametsak... egia bihurtzeko. Gura duguna da emakumeen iritziak eta ideiak jaso; eta egin gura dituzten gauzetan gure laguntza izango dute".

Mota guztietako proiektuak aurkeztu ahal izango dira: ikerketa proiektuak, enpresa proiektuak, kirol proiektuak, artistikoak... Hori bai, beka lortzeko, azaroaren 7a baino lehen aurkeztu beharko dira proiektuak. Gero, sortzen duen interesaren arabera eta zehaztutako zenbait irizpideren arabera aukeratu du Udalak zeinek irabazi duen 3.000 euroko beka. Besteak beste, proiektua aurkezteko Arrasateko izan behar da edo Arrasaten erroldatuta egon. Eta, adibidez, emakumeon presentzia publikoa sustatzen badu eta euskaraz bada, beka lortzeko aukera handiagoa izango du. Kontuan hartuko dute, era berean, ea gainerako emakumeengan eta herrian sortzen duen eragina zelakoa den.

Lanen baimenak emateko irizpideak zehaztu ditu Arrasateko Udalak

UBANE MADERA

Lanak egiteko baimenak eskatzeko irizpideak zehaztu ditu Udalak. Horren arabera, adibidez, 7.500 eurotik beherako lanen baimenak edo etxearen aurrealdea ukitzen ez duten lanen baimenak Udaleko leihatilan eskatu ahal izango dira, beste barik.

Baita etxe barruan egin beharreko lanak egiteko baimenak ere, betiere, etxebizitzak egurrezko egiturarik ez badu.

Berriz, leihatilan ez dute baimenik emango 7.500 eurotik gorako aurrekontua duten lanendako, lokal komertzialetan egin gura dituzten lanendako, egurrezko egitura duten etxeetako lanetarako, industria lurretan edozein lan egiteko, edo, adibidez, alde zaharrean egiteko edozein lanetarako. Maalako Errabalekoek eta Gesalibar, Garagartza, Bedoña eta Udala auzoetakoek ere ezin izango dute baimenik Udaleko leihatilan lortu. Ezta herriko zenbait baserriko jabeek ere. Hala zehaztu du oraingo asteko Gobernu batzordeak.

LANAK SAILKATUTA

Irizpide horiek zehazteko, lan



Kulturarekin lotutako eraikinak lan handien barruan sartuta daude.

moten sailkapena egin du Arrasateko Udalak. Horrela, batetik, lan handiak daude. Eta, bestetik, C, B, eta A motatako lan txikiagoak.

Lan handien barruan sartzen dira, esaterako, osasunarekin, administrazioarekin, erlijioarekin, irakaskuntzarekin edo kulturarekin lotutako eraikinak. Baita eraikinen konfigurazio arkitetonikoan eragina daukaten edozein lan ere.

BESTELAKOAK

Lan txikiagoen artean, berriz, sartzen dira, esaterako, eraikinaren egitura ukitu barik egin daitezkeen lanak, lur-mugimenduak, edo etxe aurreetan egiten diren lanak. Baita telebista, ur, saneamendu eta bestelako zerbitzuekin lotutako lanak ere. Eta azkeneko taldean hasieran aipatu ditugun lan horiek sartzen dira: haiendako baimena leihatilan eskuratu ahal direnak.

Hilobi komunak direla-eta Arrasateko Udalaren azalpenak

UBANE MADERA

Gerra Zibilean eraildakoen gorpuzkinen gainean komunikabideetan publikatutako albisteak direla-eta, Arrasateko Udalak prentsaurrekoa eman zuen astelehenean. Argitu gura izan zuen oraindik ez dutela gai horrekin lotutako datu zehatzik eta garbirik.


Kontua da azken egunotan zenbait komunikabidetan Kurtzebarriko

kobazulo baten agertutako gorpuzkin biren gainean berba egin dutela. Dirudienez, gorpuzkin horiek 1936ko Gerran hildako bi milizianoarenak dira. Baina oraindik ezin da jakin Arrasatekoak diren edo ez.

Horrek eta azkenaldian topatu dituzten hilobi komunek zeresana piztu dute. Batez ere, jakin izan denean Oiartzunen garai hartako hilobi komun horietako bat dagoela. Izan ere, eta garaiko datuen arabera, Hernanin eta

Oiartzunen arrasatear bat baino gehiago daude lurperatuta; garai-ko paperen arabera, gutxienez, bederatzi.

Horrela, bada, eta egoera hori ikusita, Arrasateko Udalak argitu gura izan du gertu dagoela mota horretako lanetan behar den kolaborazio guztia emateko. Are gehiago, alkateak adierazi digunez, Arrasateko Udala Aranzadi Elkartearekin kolaboratzen ari da egiten ari diren ikerketetan. Ez Arrasatekoa bakarrik, bai-larako beste zenbait Udalekin batera ari dira kolaboratzen, gainera. Baina alkateak gaineratu du oraindik ez dagoela inolako datu zehatzik. Eta, zerbait zehatza izan arte, ez dute informaziorik eman- go, "horrelakoekin kontu handiz ibili behar da-eta, sentsibilitaterik ez kaltetzeko". Edozelan ere, bide beretik segitzea espero dute. Eta, gaineratutakoaren arabera, aurrera begira egin behar diren proba guztietan laguntzeko gertu dago Udala. Izan ere, Udalaren asmoa da gerran erailak, fusilatuak eta askotan modu ezezagunean hilak izan zirenen gorpuk, ahal den neurrian, berreskuratuta eta euren senideei bueltatzea. Eta, horrela erabakiz gero, euren izen ona ere berreskuratzen laguntzea.



Xabier Zubizarreta eta Juan Ramon Garai izan ziren prentsaurrekoan.



Isuna, oinezkoen zumardia garaiz ez bukatzearren

UBANE MADERA

Arrasateko Udalak isuna ipini dio Galdiano Eraikuntzak izeneko enpresari. Kontua da Gernika oinezkoen zumardia oraindik ez dutela bukatu, eta lan-epeak pasatu direla.

Isuna ipini dio Udalak Galdiano Eraikuntzak izeneko enpresari. Kontua da aipatutako pasealekuko obren zati bat apirilaren 30erako bukatu behar zutela eta azkeneko zatia uztailaren 30a baino lehen bukatu behar zutela. Bi epe horiek enpresak berak ipini zituen, eta Udaleko Gobernu batzordeak onartu.


Baina bi epeak pasatu dira, eta Galdiano enpresak oraindik ez

ditu lanok bukatu. Hain justu ere, ez dute ipini Zarugalde zeharkatzen duen zubia, eta pasealekuaren zenbait lan txikiago ere egin barik daude.

223 EURO EGUNEKO

Hori dela eta, Arrasateko Udalak isuna ipintzea erabaki du. Hain zuzen ere, atzerapeneko egun bakoitzeko 223 euro pasatxo ordaindu beharko ditu Galdiano; hasieran esan bezala, denetara, ia 27.000 euro.

Horrekin batera, Gernika oinezkoen zumardiko lanak behin betiko bukatzeko beste epe bat ipini dio Udalak Galdiano enpresari: erabakitakoaren arabera, datorren urteko urtarrilaren lehenengoa baino lehen bukatu beharko dute zumardia.



Urte hasierarako bukatuta

Aurrera jarraitzen dute Roneo parean egiten ari diren industrialdeko lanak. Lan horien arduradunak adierazi digunez, joan den ekainaren erdialdera hasi ziren Kataide inguruan lanean, eta datorren urte hasierarako, urtarrila baino lehen, bukatuta egongo direla zehaztu dute. Denetara, hamar pabillioi eraikiko dituzte.

IRRATIA/ ARRASATE IRRATIAREN PROGRAMAZIO BERRIAREN AURKEZPENA

Albistegi eta aisialdi saio berriekin dator Arrasate Irratiko neguko programazioa

LEIRE KORTABARRIA

Arrasate Irratiko 'autobusa' inoiz baino kolore biziagoz apainduta eta inoiz baino geltoki gehiago bisitatzeko asmoz datorkigu udazken-negudenboraldian. Saio berriak, albistegi gehiago, bai herrikoak bai eta kanpokoak ere... programazio berriaren eskutik.

Berritasun nagusi bi dakarzkigu Arrasate Irratiak sasoi honetarako: alde batetik, albistegiek pisu handiagoa hartuko dute; bestetik, kolaboratzaile berriak izango ditu Arrasate Irratiak, gehienak, arlo jakin batzuetan adituak. Eta horien laguntzarekin tarte interesgarri berriak izango dira. Horrenbestez, herri-tarte guztiei informazio zehatza eta ondo pasatzeko moduko saio ugari eskaintzen jarraituko dute irratiko arduradunek: Aitziber Aranburuzabala, Maria Agirre eta Nerea Zubiete kazetariak eta Gaizka Vitoria teknikariak.



ALBISTEGI GEHIAGO

Denboraldi berriaren Euskadi Irratiarekin ordueroko konexioak egingo ditu Arrasate Irratiak. Horrela, goiz osoan, albisteen haria jarraitu ahal izango du entzuleak, Arrasateko berriak ahaztu barik, jakina. Maria Agirre eta Nerea Zubiete eskainiko dizkigute albisteok. Saio bi izango dira: bata, luzeena, 09:00etan; bestea, laburragoa, 11:20an. Azken hori arratsaldean errepikatuko dute.

Informazioa da, hortaz, denboraldi berriko protagonista nagusienetariko bat, baina entretenimenduari dagokionez ere badago berrikuntzarik Arrasate Irratian. Izan ere, ibilbide berri-rako, hainbat kolaboratzaile igo dira irratiko autobusera.

ELIKADURA, MODA, MUSIKA ZAHARRA...

Egunero programazio finkoa izango du Arrasate Irratiak, informatiboak eta *Igo Autobusera* magazina ildo moduan hartuta; baina asteko egun bakoitzak izatera propioa izango du. Bi astelehenean behin, Amaia Díaz de Monasterioguren dietistarekin solasaldia izango da; gainera, Haika Aizpuruak sasoi bateko musika ipiniko du, eta Rafael Kortabarrak burtsaren berri emango digu. Martitzenean, Amaia Arrizabalagak nazioarteko gaiak hurbilduko dizkigu, eta moda eta estilismoa landuko ditu Sergio Hernandok. Eusebio Inarrak aspaldiko kontuak ekarriko dizkigu gogora eguaztenetan. Eta horiez gainera, umorezko esketxak, prentsa arrosa, zinema... ere izango dira hizpide.



Irudietan, Aitziber Aranburuzabala eta Maria Agirre esatariak eta Gaizka Vitoria teknikaria.

Neguko programazio berria

Alboan agertzen den programazio finkoa izango du neguko goizetan Arrasate Irratiak. Hala ere, asteko egun bakoitzak izatera propioa izango du, kolaboratzaile berrien eskutik.

Horrez gain, egunero izango dira albistegiak, bai herrikoak, bai eta Euskadi Irratikoak ere. Goiz osoan izango dugu informazio osoa jasotzeko aukera, herriko eta kanpoko albisteak eskainiko dizkigu-eta irratiak.

Goizean irratia entzuteko aukerarik izan ez dutenek arratsaldean errepikapena entzuteko aukera izango dute, baita asteburuetan ere.

GOIZEZ

09.00 Igo autobusera
10.00 Euskadi Irratia (Informatiboa)
10.06 Igo autobusera
11.00 Euskadi Irratia (Informatiboa)
11.06 Igo autobusera
12.00 Euskadi Irratia (Informatiboa)
12.06 Musika berria

ARRATSALDEZ

14.00 Saioen errepikapena
19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegien errepikapena

AITZIBER ARANBURUZABALA
/ IRRATIKO ARDURADUNA

"Saio arinen eta albisteen arteko oreka gordetzen saiatu gara"

Aitziber Aranburuzabala kazetari eskoriatzarra da Arrasate Irratiko arduraduna. Maria Agirrekin eta Nerea Zubietekin batera, herriko eta kanpoko berriak gerturatuko dizkigu. Aitziberrekin egin dugu berba neguko programazio berriaren gainean.

Zer indartu gura izan duzue programazio berrian?

Informatiboek pisu handiagoa hartu dute. Alde batetik, Arrasate Irratiko albistegiak indartuko dira, aurrerantzean bi albistegi desberdin izango direlako, 09:00etan eta 11:20an. Azken hori arratsaldean errepikatuko da, 19:00etan, 21:00etan eta 23:00etan. Lehen ez bezala, orain, 11:20ko albistegi berria da, ez aurrekoaren errepikapena.

Bestetik, Euskadi Irratiarekin orduoro egingo ditugu konexioak.

Entrenimenduari ere tarte zabala eskaini diozue...

Bai, oreka dago informazioaren eta entretenimenduari artean. Saio serioak arinagoekin tartekatuta ditugu, denetarik egon dadin. Elikadura, moda, nazioarteko kontuak... izango ditugu berbagai.

Zelan ikusten duzu Arrasate Irratia orain urtebetekoaren aldean?

Zalantza barik, hobera joan da. Hori da gure helburua, bila-kaera izatea. Guk geuk geure lekua topatu dugu, eta irratia ere kokatuz joan da.



Aitziber Aranburuzabala.

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

Olarte 7. Arrasate
Tel.: 943 79 90 43

Eskaintzen dizugu:

- Produktu dietetikoak
- Sendabelarrak
- Kirol dietetika
- Elikadura naturala
- Kosmetika naturala
- Dieta pertsonalizatuak

Eta gure espezialisten aholkularitza dietetiko osoa.



Santiveri

Ondo
ibili
Maritxutan!



San Juan 1 A.
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



Mondrak liderraren, Pedruskoren, kontra jokatu du domekan

XABIER URZELAI

Arrasateko futbol taldeak, Mondrak, liderraren bisita izango du domeka arratsaldean. Oraindik jardunaldi bi baino ez dira jokatu, eta Pedruskok jokatuak bi partidua irabazi egin ditu. Maritxu Kajoi dela eta partidua domekan jokatu da, arratsaldeko lau eta erdietan.

Partidu interesgarria jokatu dute domekan Mondra eta Pedrusko taldeek. Mondra hirugarren da sailkapenean, lau punturekin. Domekako aurkaria, Pedrusko, liderra da, jokatu dituen partidua irabazi egin dute eta.

Etxeke taldeak partidua irabaziko balu, Josu Zubiaren mutilek hiru puntu baino askoz gehiago eskuratuko lukete: batetik, bederatzi puntutik zazpi izango litzukete, eta horrek Liga Txapelketa bikain hasi dutela erakutsiko luke; bestetik, Liga Txapelketa goiko postuetan izango den taldeetako bat oraingoz jokoz kanpo geratuko litzateke. Hori gutxi izango balitz, Arrasateko taldeak lehenengo postuei eutsiko lieke, txapelketa osoan galdu behar ez duen lekua, alegia. Oraingoz, Mondra hirugarren lekuan



ARRASATE PRESS

Oraingo asteburuko helburua etxean lehenengo hiru puntuak eskuratzea izango da.

dago, lau punturekin, beste hainbat talderekin batera.

IDIAZABALEN ERRAZTASUN HANDIZ

Joan den astean, Mondrak Idiazabalen zelaian jokatu zuen, eta arrasatearrak 1-5 nagusitu ziren. Partidua ez zen oso ikusgarria izan. Baloiaren jabetza Idiazabalena izan zen, neurri handi baten, baina Mondrak egiten zuen kontraeraso bakoitzean gola egiteko aukera garbia izaten zuen. Jon

Muruak arratsalde biribila izan zuen, eta aurrelari arrasatearrenak izan ziren bost golak. Mondrak hamar jokalarirekin jokatu zuen bigarren zati osoa, epaileak Kepa Barbarias txartel gorria erakutsi zion eta. Hamar jokalarirekin ere Idiazabalek ez zuen jokaldi arriskutsurik egin. Edozelan ere, argi dago oraingo domekako partidua ez dela izango joan den astekoa bezain erraza, aurkaria hobe da eta.


FOTOKIROLA



Ramón Ramila Ehiza Txapelketa nagusi

Joan den asteburuan, Arrasateko Leintz Elkarteak Ehiza Txapelketa antolatu zuen. Denera, hogeita bost lagun inguru aritu ziren txapelketan, eta faisai eta galeperrak ehizatu zituzten. Txapelketa Santa Cruz del Pierron jokatu zen. Arabako Errioxan, eta irabazlea Ramón Ramila mondraingoetarra izan zen. Bigarren urtez eskuratu du Ramón Ramilak txapelketa hori; joan den urtean ere ehiztari mondraingoetarrak eskuratu zuen txapela, eta aurten ere badirudi sasoian dagoela.

FOTOKIROLA



Giro ona eta parte hartzaile asko Auto Telegidatuen Lasterketan

Hemeretzi lagunek parte hartu zuten Fagorreko aparkalekuan jokatu zen Auto Telegidatuen Lasterketan. Mondraingoetar bi izan ziren lasterketan: Raúl Díaz eta Antxon Carena. Mondraingoetarrek ez zuten zorte handirik izan, arazo mekaniko asko izan zituzten eta. Lasterketan 1/10 eskalako autoak izan ziren, eta irabazlea Miguel Segovia galdakoztarra izan zen. /X.U.

IKASTAROK

Martitzena ezkerro Norbera Zaintzeko Ikastaroa abian Musakolako kiroldegian

Martitzenean, Norbera Zaintzeko Ikastaroa hasi zen Musakolako kiroldegian. Ikastaro horretan zenbait kultura eta tradizioko gimnasia terapeutikoa eta norbera zaintzeko ariketak egingo dituzte. Besteak beste, Txinako osasun ariketak, Do-In deritzenak, arnasa ondo hartzeko ariketak, erlaxaziozko ariketak, masajeak eta luzatze-ariketak egingo dituzte.

Horrez gain, pentsamendu eta teknika naturistak ezagutzeko aukera izango da. Ikastaro hori martitzenean hasi zuten, eta astean bitan izango da, martitzenetan eta eguenean. Informazio gehiago gura duenak 943 77 01 33 telefonora dei dezake.

TXIRRINDULARITZA

Aretxabaletako Udazkeneko Criteriumean Swiss-Flex taldeko txirrindulariak nagusi

Domekan sekulako giroa izan zen. Bizikletan ibiltzeko egun ezin aproposagoa, eta bi lasterketak, bai goizekoa baita arratsaldeko erlojupekoa ere, oso ikusgarriak izan ziren.

Aretxabaletako Udazkeneko Criteriumean Ekaitz Eizagirre eta Iban Iriondo izan ziren onenak. Swiss-Flex taldeko txirrindulariek eskuratu zituzten goizeko eta arratsaldeko etapak. Ibarreko talde bi izan ziren lasterketan: Ulma eta Fagor. Ulma taldeko Iñaki Juldainek 15 minutu 59 segundo egin zituen erlojukontrakoan. Fagor taldeko Raúl Blázquez, Ametz Elustondo eta Endika Martín izan ziren, eta denbora onena Raul Blázquezek egin zuen (15:02).

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



INDEPENDENTE-
ENTZAT



FAMILIA
DUTENENTZAT



MAITE
DUTENENTZAT



EZKON
BERRIENTZAT

D E N O N T Z A T

Ormazabal



Sukaldeak
Sta. Marina, 4
Tel. 943 78 30 58

Bainuak
Apaolaza, 2
Tel. / Fax: 943 78 16 40
20560 OÑATI

Eraman dotoretasuna eta plazerra zure etxera

Bainu altzariak eta osagarriak.
Hidromasaje bainerak eta kabinak

gelatza

Zubillaga auzoa 1.
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22,
Faxe: 943 78 15 51

C8
Berria



Etor zaitez:

CHAPIME TAILERRAK SCL Citroën-eko Kontzesionario Ofiziala
San Andres auzoa 5 Tel.: 943 79 45 22. ARRASATE.



Kenci Arrasatek bihar hasiko du denboraldia, Askartzaren kontra

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibaloitzaletak, Kenci Arrasatek, bihar hasiko du denboraldia. Iker Zubiriaren mutilek egun ezin aproposagotan jokatu dute denboraldiko lehen partidua, Maritxu ostein. Taldeak ondo hasi gura badu, gaurko parranda neurtu egin beharko dute jokalariek.

Gainerako kiroletan domekan jokatu dituzte partiduak, baina Kenci Arrasateko mutilak zaindu egin beharko dira gaur gauean. Bihar, zapatua, denboraldiko lehen norgehiagoka izango dute, eta Askartz talde bizkaitarra ez da txantxetarako kontrarioa. Arrasatearrek igoera faserako sailkatzea dute helburu, eta lehenengo puntuak eskuratzeko ahalegina etxetik kanpo egin beharko dute, partidua Askartzan jokatu da-eta. Zeingehiagoka arratsaldeko seietan izango da, hortaz, batek baino gehiagok lo egiteko aprobetxatuko du zapatu goiza.

AURTEN ERE LAU TALDE

Oraingo asteburuan lehenengo mailako taldeak bakarrik hasiko du denboraldia. Aurten lau talde izango ditu Arrasateko saskibaloitzaletak: lehen mailako taldea, gazte mailako taldea eta kadete



ARRASATE PRESS

maila talde bi, mutilena eta neskena. Esan bezala, oraingo asteburuan lehenengo taldeak bakarrik hasiko du denboraldia. Datorren astean gazte mailakoek eta kadeteetako mutilek zapatuan

jokatuko dute aurtengo denboraldiko lehen zeingehiagoka. Emakumeek, berriz, hurrengo egunean, domekan, jokatu dute aurtengo lehen partidua. Ea guztiek ere hasiera ona izaten duten.

Arrasateko pilotariek Gipuzkoako Txapelketa hasiko dute asteburuan

Arrasateko pilotariak gogotsu ibili dira udan entrenatu eta pilotari partiduak jokatzen. Mondragoetarrek, hortaz, ez dira geldirik egon, eta denboraldia ondo hasi dute gogor ibili dira lanean. Denboraldiko lehenengo txapelketa, Gipuzkoako Txapelketa, oraingo asteburuan hasiko da, eta mondragoetarrek joan den urtean izandako urte kaskarra hobetzea izango dute helburu. Horretarako pilotaririk ez da falta, eta zorte, gogo, seriotasun eta kontzentrazio apur batekin uste bai-

no emaitza askoz hobeak eskura daitezke.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, ABIAN

Senior mailan bikote bi izango ditu aurten Arrasateko taldeak. Lehenengo mailan Zugasti eta Lazkano arituko dira eta senior mailako bigarren mailan Urribarrenek eta Errastik jokatu dute. Urribarren orain arte gazte mailan ibili da, baina dagoeneko amateur moduan aritzeko ordua iritsi zaio.

Gazte mailari dagokionez,

bikotea Agirre eta Zuazua arituko dira eta banaka Arroyabe pilotaria arituko da Arrasateren izenean.

Txapelketa asteburuan hasiko da, baina partidu batzuk eguenera aurreratu zituzten. Lerro hauek idazterakoan egutegia konfirmatzeko zegoen, hortaz, baliteke bigarren mailako seniorrek eta gazte mailako pilotariek atzo, eguena, jokatu izana. Gainerako bikoteek kanpoan dituzte norgehiagokak, eta seguruenik zapatuan izango dituzte partiduak.

ZALDIBARKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Zaldibarko txapelketa izena emateko martitzenean eta eguaztenean Monterronen

Gero eta gutxiago falta da aurtengo Zaldibarko Areta Futbol Txapelketa hasteko. Txapelketa izena eman gura duten taldeek datorren martitzenean edo eguaztenean Monterron jauregira joan beharko dute. Antolatzaileak arratsaldeko zazpjetatik zortzi eta erdiak arte egongo dira Monterronen.

Joan den urtean behar den moduan ibili ziren taldeek fidantza jasotzeko aukera izango dute, eta fidantza hori jaso gura dutenek martitzenean edo eguaztenean joan beharko dute Monterronera. Aurten ere txapelketa parte hartuko duten taldeei joan den urteko fidantza gordeko zaie.

Txapelketa urriaren 19ko eta 20ko asteburuan hasiko da, eta ordurako antolakuntzakoek guztia gertu izango dute. Hala ere, antolakuntzakoek ondo etorriko zaie laguntza apur bat.

FOTOKIROLA



Errugbian Eibarren kontra irabazi

Arrasateko Errugbi Taldeko mutilek lagun arteko partidua jokatu zuten joan den asteburuan. Aurkaria Eibar izan zen, eta argi zegoen partidua ez zela batere erraza izango. Etxeko taldeko jokalariek, Hernanin jasotako jipoia ahazteko asmoz gogotsu irten ziren zelaira, eta denboraldian aurkari izango den taldeak, Eibarrek, ezin izan zuen ezer egin. Arrasatearrek 10-7 nagusitu ziren. Arrasateko Errugbi Taldekoek urriaren 12an (zapatua) hasiko dute denboraldia. /X.U.

MUXIBAR

Tel.: 943 79 11 25
PIZZAK

ORTO + LAGUN

ORTOPEDIA

Ondo ibili Maritxutan larrei okertu barik!!

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



CANDIDOK EHUN URTE

Candido Moraleja herriko pertsona nagusienetako bat da. Datorren egunean urteak egingo ditu, eta zenbaki biribila izango da, gainera, 100 urte egingo ditu-eta. San Juan jaietan omenaldia egin zioten Candido Moralejari, herritar zaharretako bat delako. Egutero ez dira ehun urte egiten, gutxi iristen dira adin horretara. Egunean lan ederra izango du belarritik ehun tirakada egin gura dizkionak. ARRASATE PRESSko lankideok ez dizkiogu ehun tirakada egingo, baina egun ona pasatzea opa diogu.

OÑATIKO ZINEMAGILEAK ARRASATE IRRATIAN

Hollywoodetik Arrasate Irratira. Uda honetan AEBetan izan dira Aitor Mantxola eta Aitor Perosterena oñatiarrak, film baten filmaketan parte hartzen, eta joan den astean Arrasate Irratian izan ziren atzerrian bizi izandakoa kontatzen. *Skin*

deep izeneko *thriller*-ean produkzio eta argazki zuzendari lanetan ibili da Mantxola. Perosterena, aldiz, dekoratzaile lanetan ibili da. Aitziber Aranburuzabalak egin zien elkarrizketa, eta bazekien zer galdetu; izan ere, Aitziber ere filmean izan da lanean.




EZIN HOBETO BIASTERIN


Joan den irailaren 18an, 1929an jaiotako arrasatear batzuek bazkaria egin zuten Biasterin. Denera, hogeita lau lagun elkartu ziren, eta bazkaldu ere ederto bazkaldu zuten, Señorío de Aracoko upelategian. Argazkiko hogeita lau lagunek 1950ean egin

zuten soldadutza, eta argi dago bazkaria garai haiek gainbegiratzeko aitzakia ederra izan zela. Ez da horrelako bazkari bat antolatzen duten lehenengo aldia, eta bazkarira, 1929an jaiotakoez gain, beste hainbat lagun ere joan ziren. Giro ona dagoen seinale.

TXAKOLINA EGITEKO MAHATS BILKETA ABIAN DAGO

Bidean da aurtengo txakolina, Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait eskualdetan egiten den ardo gazte eta arina. Arrasaten Hegihandi baserrikoek urteak daramatzate Kataide markako txakolina egiten, eta aurtun dagoeneko hasi dira mahatsa biltzen. Argazkiko Jabier Arregi da, eta hark esan digunez, aurtengo giroa dela-eta mahatsa ondo bete da, baina ez da behar bezala landu. Probatzeko aukera izango da.





EGURALDIA LAGUN, GIRO ONA NAGUSI SAN MIGELETAN



Garai honetan ez da ohikoa izaten San Migeletan eguraldi ona egitea, baina aurten zortea izan dute garagartzarrek eta giro ezin hobea izan dute auzoko jaietan. Hala izan zen auzoko bazkarian; garagartzar dezente elkartu ziren mahaiaren bueltan, eta bapo bazkaldu eta gero, musika eta dantzaldia izan zuten. Han izan ziren, gustura asko, arratsaldeko zazpiak arte. Umeak ere ibili ziren tartean; besteak beste, 10 urtetik beherako ume guztiek opari bana jaso zuten. Eta, horrez gain, puzgarriak eta bestelakoak ere izan zituzten, jolasean ibiltzeko. Jakina, Garagartzako jaietan ahaztu ezin dugun beste elementu bat buzkantzak dira. Argazkian ikusten dugun moduan, txiki-txikitatik erakusten diete auzoko umeei buzkantzak egiten. Akaso, horregatik ateratzen zaizkie gero horren goxoak, horrenbeste urte egin eta egin ibili eta gero... Bestalde, jaietan zozketatzen den otarraren irabazleak domekara arte du Garagartzako alkatearengana joateko sari bila. 541 zenbakia da sariduna; hortaz, txartelaren jabea, adi ibili, agertu ezean, 254 zenbakidunak eramango du-eta otar eder hori.



GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Milarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



LITERATURA/ Udal Liburutegiak Literatura Solasaldiak antolatu ditu

Aurtengo ikasturtean ere literaturaz egingo dute berba Udal Liburutegian

KER BARANDIARAN

Udal liburutegiak Literatura Solasaldiak antolatu ditu. Hilean behin lagun talde bat elkartu eta aurretik adostutako liburu baten gaineko irakurketak egingo dituzte. Euskarazko eta gaztelaniazko saioak egingo dituzte.

Arrasateko Udal Liburutegiak Literatura Solasaldiak ekimenaren bigarren aldia antolatu du. Urriaren erdialdean hasi eta ekainaren bukaera arte, hilean behin egingo dituzte solasaldiak, euskaraz eta gaztelaniaz. Solasaldi horietan parte hartu gura dutenek urriaren 4a aurretik eman beharko dute izena, Udal Liburutegian bertan.

Solasaldi horietan lagun talde bat elkartu eta aurretik adostutako liburu baten gaineko irakurketak egingo dituzte. Horren bitartez, irakurketa esperientziak elkartrukatu egingo dituzte; idazlearen eta haren tekniken gainean berba egingo dute. Irakurketa bultzatuko dute eta hausnarketa eta eztabaida espazioa sortzen ahaleginduko dira.

HILEAN BEHIN, ORDU BIKO SAIOAK

Euskarazkoak zein gaztelaniazkoak hilean behin elkartzen dira, ordu biko saioak egiten dituzte eta partaideek egindako irakurketan oinarritzen dute eztabaida.

Literatura Solasaldien antolatzaileek aditzera eman digute, aurreko ikasturtean lehenengo aldian gaztelaniazko saioetan hamazazpi lagun ibili ziren. Eta euskarazko saioetan, berriz, zazpi lagun. Saio bietan ia guztiak emakumezkoak dira, berrogei urtetik gorakoak. Udal Liburutegiko arduradunen helburuak euskarazko saioei bultzada handiago ematea da, eta, era berean, gizonezkoen gonbita egitea anima daitezten.

EUSKARAZKO SAIOAK SENDOTU

Dagoeneko konfirmatuta dituzte urritik abendura arte egingo dituzten irakurketa saioak. Abendutik ekaina bitartekoak, berriz,



UDAL LIBURUTEGIA

Euskarazkoak zein gaztelaniazkoak, hilean behin, ordu biko saioak egingo dituzte

oraindik zehaztu barik daude. Euskarazko saioei dagokienez, urriaren 14an, Iban Zalduaren *Gezurrak, gezurrak, gezurrak* liburuaren gainean mintzatuko dira. Azaroaren 11n, Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* liburuaren gainean berba eta irakurketak egingo dituzte, baina ez da gonbidaturik izango. Abenduaren 9an, Josu Landaren *Odol*

Udal Liburutegiak euskarazko taldea sendotu eta gizonezkoak animatu gura ditu

bidua liburuaz aztertuko dute. Oraindik ez dakite solasaldi horietarako gonbidaturik izango ote duten, baina gonbidatuak lortzen saiatuko dira.

Bestetik, gaztelaniazko saioei dagokienez, urriaren 10ean hasiko dituzte, Natalia Ginzburgen *El camino que va a la ciudad* liburuarekin; azaroaren 7an, Franz Kafkaren *Metamorfosis*

Irakurzaletasuna bultzatu eta eztabaida espazioa sortu gura dute, besteak beste

liburuaz aztertuko dute; eta abenduaren 12an, azkenik, Virginia Woolfen *Orlando* liburuaren gainean mintzatuko dira. Saio guztiak Udal Liburutegian izango dira, 18:30etik 20:30etara. Euskarazko saioen dinamizatzailea Itziar Zubizarreta izango da eta gaztelaniazko saioena, Ana Arregi. Irakurzaletasuna suspertzeko aukera polita!

Abian da Cante Flamenko Txapelketa

Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketa hasi da dagoeneko. Hiru finalerdiak Al Andalus elkarteak Zigorrolan duen egoitzan egingo dituzte eta finala, berriz, Amaia Udal Antzokian izango da.

Joan den zapatuan, Al Andalus elkartearen Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketako finalerdiak egin zituzten. 23:00etan hasi eta 01:00ak arte luzatu zen txapelketa, eta antolatzaileak oso gustura gelditu ziren.

Jende asko hurbildu zen Al Andalusera txapelketako lehenengo finalerdia ikustera, eta lagun askok zutik ikusi behar izan zuten txapelketa. Zazpi parte hartzaile izan ziren, horien artean, neska bat, Nieves Márquez. Antolatzaileen esanetan, Al Andalus elkartearen entzun ziren cante flamenkoen artean, seguidillak, bulerriak, petenerak, solearesak, malagueñak, cartagenerak eta tarantak nagusitu ziren.

Parte hartzaileak gustura aritu ziren, baina epaimahaiak oraindik ez du epairik emango. Gogora ezazue bihar, zapatua, eta irailaren 12an beste bi finalerdiak egingo dituztela.

Udaleko Gazte Saileko Argazki Lehiaketa

Udaleko Gazte Sailak eta herriko ASA argazkilari taldeak Arrasateko XIII. Argazki Lehiaketa antolatu dute. Aurtengo lehiaketaren leloa *Gazteak eta aisialdia* da, eta derrigorrez gai horrekin lotutako argazkiak aurkeztu beharko dira.

Lehiaketa horretan parte hartzeko eta argazki lanak bidaltzeko epea urriaren 15ean bukatuko da. Lanak Arrasateko Udaltxerara edo Gazte Bulegora bidali beharko dira.

Parte hartzaileen artean bi maila bereiztu dituzte: bata, 13 eta 17 urte bitartean dituzten ibarrekondako; eta bestea, ibarretan edo ibarretik kanpo bizi diren 18 urtetik 35 urte artekoendako. Parte hartzaileen artean zazpi sari banatuko dituzte, horien artean Emakume Sailarena.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Maritxu giroirik

CAFÉ

IAMAI

HONTZEZIMO KALEA 11

943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Giro desberdin bat!!



Jai Zale Taberna ★

Olarte 37, Behea 20500 Arrasate Tel.: 943 796 192

**ESKIÑA
taberna**

Olarte, 25 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 79 20 20

**RUMBA
TABERNA**

Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



Itzala

Iturriotz kalea, 19
943 77 30 29

DISCO-BAR



Disco-Bar Gureleku

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29

tan, jai onena!

BRANKA TABERNA

Maritxutan ondo pasa!
Zarugalde 1 • Arrasate • Tel.: 943 79 21 13

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE



LORA

Ondo pasau
Maritxutan!!!

ALDAPE

Taberna

Espezialitatea: menua-karta

Iturriotz, 41
Tel.: 943 79 70 41
ARRASATE



IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62



Kalitatea • Aukera zabala • Arreta pertsonala

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42

E, TXO!

GUREGAIK/ IKASLEENDAKO ETXEBIZITZAK ETA EGOITZAK

Ikasleak azken orduan ikasle-egoitza edo etxebizitza bila

IKER BARANDIARAN

Urria heldu da, eta hilabete horrekin batera unibertsitateko ikasturteak hastera doaz. Oraindik bada Arrasaten edo inguruetan ikasle-egoitzarik edo etxebizitzarik topatu ez duen gazterik. Mugi dadila!


EHUn ikasturtea hastera doa, eta dagoeneko Mondragón Unibertsitatean ere eskolak hasi dituzte. Hainbat gaztek, egunero, ikasten duten herrira autobusez edo autoz joan-etorria egiten dute, eta beste askok herrian edo hirian bertan etxebizitza edo ikasle-egoitza baten lekua topatzea gurago izaten dute. Oraindik lo egiteko lekurik topatu ez baduzu, azkar ibili. Jo hartu zaituen unibertsitate

Mondragón Unibertsitateko webguneak ikasleen etxebizitza eskaintza eta eskaera dakar

tatera eta begiratu hango iragarkiak. Ziur beste batzuk zure antzera ibiliko direla.

MU-KO WEBGUNE, LAGUNGARRI

Edozelan ere, Arrasaten ikasi behar dutenek badaukate beste aukera bat: Mondragón Unibertsitateko webguneak MUko ikas-



ARTXIBOA

Gazteek gurago izaten dute beste ikasle batzuekin batera bizi izatea.

leen etxebizitza eskaintza eta eskaera eguneratuta dakar. Merez du webgune horretan proba-

tzea. Horrez gainera, webgune berean Biteri ikasle-egoitzako informazioa ere badator.

BESAIDE GARBITU ZUTEN

Joan den zapatuan, gaztetxeok Besaidera mendi irteera egin zuten. 09:30ean, hamabost lagun batu eta, eguraldiak lagunduta, Besaiderraino jo zuten. Besaideko inguruak garbitzen ibili ziren, eta, batez ere, zigarrokinak eta kartutxoak topatu zituzten.

GAZTEEN SALAKETA

Egubakoitzean, afaloste-an, AGAKOKO gazteek Arbolapetan elkartu eta Udalak Altamiran utzitako behin-behineko egoitzara jo zuten, batzarra egiteko. Bidean zihozela, ertzainen bi furgonarekin topo egin zuten, eta ertzainek, banan-banan, hamabost lagunak identifikatu eta arakatu zituzten. Are gehiago, ertzainek gazte batzuk mehatxatu eta iraindu zituzten. Gazteak oso haserre daude gertatutakoarekin.

AGAKOREN TXOSNA

Gaztetxeok txosna jarriko dute gaur, 19:00etan.

LUDOTEKA BERRIA

Txatxilipurdik jakinarazi gura du Seber Altubeko ludoteka itxita dagoela eta berria Okendo kalean (Feli denda parean) jarri dutela. Dagoeneko zabalik dago, astelehentik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara. Aurten ez dute eskoletan izenemate orririk banatuko eta interesatuei ludotekara bertara jotzeko deia egin diete.

TXIKILANDIARAKO BEGIRALE BILA DABILTA

Txatxilipurdik urtero antolatzen duen Txikilandia parkean begirale izateko epea azaroaren 30a arte zabalik dago. Euskaraz badakizu eta 18 urte baino gehiago badituzu, jo Txatxilipurdira izena ematera.

LOTSABARIK/ Maialen González

“Arrasateko mutilak oso lotsatiak dira”

IKER BARANDIARAN

Maialenek kirola egitea eta abestea oso gustuko du, eta ikasketekin buru-belarri dabil. Ikasketekin oso presionatuta dabil, baina Maialenek eta haren lagunek herriko mutilei lotsa kendu gura diete.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Txikitan, irakasle izan gura nuen, batez ere, notak jartzeko. Neuri notak jarri dizkidatenean sufritu egin dut, eta neuk ere ikasleei gogor egingo nieke.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkondata eta, seguruenik,

bi edo hiru seme-alabarekin, baina ez nintzateke Arrasaten bizi izango; Euskal Herriko beste herriren baten.

• Zein da, zure ustez, adin ideiala?

Hamazazpi urte. Adin horretatik aurrera askatasun handiago edukitzen dela diotelako.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei, familiari eta ikasketei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Une honetan, ikasketek, presio handia daukagulako.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Elkarrizketa honek lotsatzen nau, baita ere jendaurrean lotsa-

garri gelditzeak.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Alaia naiz, baina oso azkar haserretzen naiz, jenio bizia daukat.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ez dakit zer esan... Bueno, belarriak, normalak direlako, ez handiak ez txikiak.

• Jendeari zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Lehenengo, fisikoari, lehenengo ikusten dena delako, baina gero, barrukoari, izaerari.

• Arrasaten ligatzen da?

Ez, herri honetak mutilak oso lotsatiak dira. Neskak baino askoz lotsatiagoak dira.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: Batxilergoko I. maila • ZALETASUNAK: Kirola egitea eta abestea
LIBURU BAT: 'El diario de Ana Frank' • FILM BAT: 'La boda de mi mejor amigo' • MUSIKA TALDEA: Su Ta Gar eta Betagarri • KIROL TALDEA: Reala



Comercial
ARPE

Kontzezino 4 - behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09



**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

BEHEKO JATETXETIK

Pilar Urkia

KATAIDE JATETXEKUE

XABIER URZELAI

Pilar Aretxabaletako Lariño auzokue da, baiñe Mondraguen bizi da aspaldittik. Zerbitzari hasi zan lanien, eta gero Fagorren hasi zan. Bost urte egin zittuen Fagorren, eta lantegittik urtendakuen zerbitzari lanetan hasi zan barriro be. Musakolako kiroldagixen lehenengo, eta Kataiden gero.

Amets bat?

Bizimodu trankille eruetie.
Eta amets txar bat?
Familiakuei desgraziaren bat-
edo pasetie.
Egin dozun azken biajie?
Saloura, bakaziñotan.
Txartel horixe zeñei?
Ez dakit, lana ganoraz egitten
ez dauenari-edo.
Eta gorrixe?
Min egitteko asmuekin etor-
ten danari.

Pelikula bat? Liburu bat?
Disko bat?

Neuk *Goenkale* ikusten dot gus-
tora / Aspaldi ez dot libururik ira-
kurri, *Goienkaria* irakurten dot
gustora. / Arrate Irratia entzuten
dot, trikitixak-eta...

Drogak legalizauko zittukie?
Kontu horrein gafiñen ez dot
entendituden.

Eta prostituziñue?
Ezetz pentsetan dot.
Tabernetako txikiteue ala
diskotekak?

Ez bata eta ez bestie.
Ze dauketzu sobran?
Ezer be ez.
Eta faltan?
Faltan be ez dauket ezer be ez.
Etxeko zapatillek ala zapa-
tak?

Sandaliak.
Alkate izengo bazitze, ze
hobetuko zeunke?

Neuk ez dot balixo alkate ize-
teko, eta daguena gustetan jat.

Eta lehendakari izengo bazi-
tze?

Ze hobetu egongo da, baiñe
neuk ez neuke hobeto egingo.

Mendi bat?
Kurtzebarri asko gustetan jat,



*“Maritxu Kajoiko
gaba txarra izeten
da lan egitteko, jentie
edanda etorten
da-eta”*

eta Urbia aldien be ibiltten gara.
Bizi izetara hiri batera jue-
tekotan, nora?

Ez nitzake hiri batera bizi ize-
tera juengo, baserri baten biziko
nitzake gustora.

Ezagutu dozun pertsona inte-
resante bat?

Juan Maria Uriarte obispue.
Lariñora etorri zaniñen oso per-
sona apala zala pentsau jaten.

Eta ezagutu nahiko zeunke-
ena?

Aitte Santue esaten badot,
etxien barre egingo dustie.

Zertan gastauko zeunke
dirue gustora?

Lariñon etxetxo bat egingo
neuke gustora.

*“Mendixen ibiltten
naz gustora. Pasiñtan
edo perretxikuek
batzera jueten naz
normalien”*

Tranpan ibilttekotan nor-
baittekin, zeñekin?

Idearik be ez dauket.
Bizio bat?

Lana. Etxien alabek haserre
egitten dustie, ezin naz geldi egon.

Dagueneko jubilau egin zara,
merezittako deskantsue, ala?

Bai, baiñe ondiokan laguntze-
ra etorten naz noixien behin.

Maritxutan, hortan, eukiko
dozu ze egin.

Egun txarra izeten da hori, jen-
tie edanda etorten da-eta.

Astien zihier jente asko etor-
ten da hona bazkaittera?

Bai, bai. Ehun lagun baiño gehi-
xago etorten die egunero. Inguru-
ko langilliek, batez be.

NIREBIDAIAHURA/ Oxel Arrieta

Venezuelara / 2002ko abuztuan

Oxel Venezuela ezagutu eta bertan bizi diren eus-
kaldunak bisitatzeke asmoz joan zen Hego Ame-
rikako herrialde hartara. Ez zen bakarrik joan,
neskalaguna ere, Ursulla, Oxelekin joan zen-eta.

Bikote arrasatearrak Chichirivichen egin zuen lehe-
nengo astea. Chichirivichen uharte tropikal mordoa dago,
eta turismoa da nagusi. Hango bizilagunek turistak uhar-
teetara txalupetan eramanda irabazten dute eguneko ogia.
Uharte haietako baten, Caio Sombregon, 70 urteko emaku-
me euskaldun bat bakarrik bizi da, eta Oxelek eta Ursullak
emakume hura ezagutzeko aukera izan zuten: “Sekulako
emakumea zen, bakarrik bizi zen uhartean, eta bizi izateko
behar zuen guztia lortzen zuen hark”.




*“Ardura
politikoa
hiriburuan
bakarrik
dago”*

Chichirivichetik Caraca-
serra joan ziren bi mondragoe-
tarrak, eta Venezuelako hiri-
buruan aste bi egin zituzten.
Urtarrilak 23 auzoan izan ziren
Boliviarr Mugimenduarakin eta
brigadista euskaldunekin, eta
lehenengo egunean areto futbol
partidua jokatu eta jaia egin
zuten. Hango egoera politikoa
azpimarratzeko delat diote
Oxelek eta Ursullak. Manifes-
tazio baten ere izan ziren, eta aurreko egunean tiroketak
izan ziren. Caracastik Meridarako bidea hartu zuten, eta
hango klima hotzak harrituta utzi zituen. “Meridan Ande-
ak hasten dira, eta mendiko klima dezente nabaritzen da”.
Meridatik Los Llanoserako bidea hartu zuten, eta Los Lla-
nosen kanpamendu baten izan ziren, indigenekin bate-
ra. Ez zeukaten elektrizitaterik, eta ahal zuten moduan
moldatu ziren: “Anakondak, pirañak eta kaimanak ehi-
zatzeko irteerak egiten genituen. Antolatutako irteerak
ziren, eta ehizatutakoa jan egiten genuen”.

Egoera politikoa azpimarratzeko delat aipatu dugu
lehen, baina mugimendua hiriburuan bakarrik nabari-
tzen da: “Gainerako herrietan badirudi ez direla ezertaz
ohartzien. Hori bai, lanera, gizonezkoak, eta etxean gera-
tzen direnak, emakumeak. Oso gizarte matxista da hura”.

XABIER URZELAI



Venezuelako hondartza baten egindako argazkia, iluntzean.

Herrialde berriak
bisitatu dituzu udan?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

Arrasate PRESS



EMAKUME TXOKOA

Emakume Sailak antolatutako ikastaroak

Literatura ikastaroa:

Liburutegiarekin batera antolatua
Noiz: Urritik maiatzera
Euskaraz eta gaztelaniaz
Doan

Aventura corporal ikastaroa:

Emalea: Pepa Bojó
Noiz: eguenetan, 17:00etatik
19:00etara
Urriaren 17tik abenduaren 19ra arte
Izenematea : Emakume Saila, Gazte
Bulegoa edo 943 79 41 39
Doan

Komiki ikastaroa:

Emalea: Asisko Urmeneta.
Noiz: urriak 10, eguena
Urriak 14, astelehena
Urriak 17, eguena
Saio bakoitza bi ordukoa izango da
Tokia: San Viator Ikastolan
18:00etatik 20:00etara
Plaza mugatuak, gehienez, 12 ikasle.



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■
Emakume Saila ■

EMAKUME TXOKOA

Emakumeel zuzendutako beka

Arrasatekoa bazara eta proiektu
bat baduzu, hona hemen zure
aukera: emakumeel zuzendutako
beka, 3.000 euro, zure ametsa
egia bihurtzeko, konta egiguzu.
Zure proiektua errealitate
bihurtzen lagunduko dizugu.

Ideiak eta proiektuak
aurkezteko epea : azaroaren 7a

Arrasateko Emakume Saila
Tel.: 943 79 41 39



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



ARRASATE
Ana Salaberri
Irailaren 22an, 12 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Mikel Vinagre
Urriaren 7an, 17 urte.
Zorionak! Koadrilaren partetik.



ARRASATE
Danel Rodríguez
Urriaren 1ean, urte bi.
Zorionak! Amama, Ana eta Nagore.



ARRASATE
Jon Zubizarreta
Urriaren 1ean, 9 urte. Zorionak, amamaren, Oxelen eta Eliren partetik.



ARRASATE
Jone Iribecampos
Irailaren 4an, 10 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maite Casas
Irailaren 28an, 18 urte.
Zorionak! Lagunak.



ARRASATE
Miren Blanco
Irailaren 29an, 18 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Olatz Leganda
Urriaren 2an, 8 urte. Zorionak! Etxekoak partetik.



ARRASATE
Nereha Sagasta
Urriaren 1ean, 17 urte.
Zorionak! Etxekoak partetik.



ARRASATE
Amaia Sagasta
Irailaren 30ean, 13 urte.
Zorionak! Etxekoak partetik.



ARRASATE
Imanol Zeziaga
Urriaren 5ean, 12 urte.
Zorionak! Etxekoak partetik.



ARAMAIO
Patxi Ayastuy
Urriaren 3an, urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak partetik.



ARRASATE
Leire Aranburu
Urriaren 4an, 9 urte. Zorionak, familiakoak partetik.



ARRASATE
Maria Eugenia Urroz
Urriaren 3an, urtebetetzea.
Zorionak, ama! Koldo eta Estela.



ARRASATE
Anabel Bellido
Urriaren 5ean, 27 urte.
Zorionak! Bizilagunen partetik!



ARRASATE
Jone Lizundia
Urriaren 7an, 3 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Balbina Mondragón
Urriaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak, amama!, Ondo pasau zapatuen!



ARRASATE
Naiara Capellán
Urriaren 2an, 3 urte. Zorionak! Aita eta ama.



ARRASATE
Miren Arexolaleiba
Irailaren 26an, 7 urte. Zorionak, Amaiaren, aitaxoren eta amatxoren partetik.



DONEZTEBE
Beñat San Miguel
Urriaren 5ean, 12 urte. Zorionak! Amaren, aitaren eta Paularen partetik.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



URONDO

Elektrizitatea


- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

GIDA 2003

abian!



Aurten, telefono partikularrak aurkitu ahal izango dituzu.

Lagunak, familia, ezagunak...
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu
edo aldatu baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Gida Komertziala,
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

Seiscientos-en sasoiatik gaur arte seiehun aldizkari atera ditugu

Aldaketa handiena azkeneko urtean izan du, baina ARRASATE PRESS etengabe garatuz eta osatuz joan da

IKER BARANDIARAN

Arrasatearrok ARRASATE PRESS aldizkaria seiehungarren aldiz jaso dugu gaur. Ez da zenbaki guztiz biribila, baina bai, behintzat, kontuan hartzekoa. Azkeneko urtean itxura zeharo aldatu badu ere, aurretik ere hainbat pauso eman zituen.

ARRASATE PRESS 1988ko abenduan jaio zen, AEDri esker. Ez dakit 1988an Arrasaten Seiscientos asko ikusiko ote ziren, baina gaur egun gelditzen diren apurrak, geratzen badira, askorendako iraganeko altxorrek dira. Beste batzuek, ordea, zaharkituta geratu dira. Edozelan ere, ARRASATE PRESSek ez die muzinik egin hasierako helburuei, eta jende askori esker, urte hauetan guztiotan garatuz eta osatuz joan da.

ARRASATE PRESSko lehenengo zenbakiak Zeharkale Estalian, Udaletxearen alboan, egin zituzten, 1989ko uztailean arte. Apple Macintosh Plus ordenagailu txiki-txikiak erabiltzen zituzten, hogeit hamar megabiteak. Sasoi hartan, laser inprimagailuan ateratako orriak eramaten zituzten Gertu inprimategira. Handik Arrasate pasealekura pasatu ziren, gero Arrasate Irratia egon zen lekura. Ordurako, ARRASATE PRESSek oihartzuna bazuen, eta beste herri aldizkari batzuk jaio ziren. Sasoi hartan, maketaglearendako Mac-II ordenagailua erosi zuten.

1990ean, ospitale zaharrera joan orduko, Arrasate Telebistaren proiektua abian jarri zuten. Ospitale zaharreko egoitzan hotz egiten zuen eta, gainera, arratoiak zeuden. Sasoi hartan, aldizkariak aldaketa nabarmenak izan zituen: maketatzeke Quark X Press programa erabiltzen hasi ziren, eta 1993tik aurrera, aldizkarian koloreak gero eta presentzia handiagoa hartu zuen. Bestalde, 1994an, aldizkariako eta telebistako lan taldeek bat egin zuten.

1997an, ARRASATE PRESS bera eta ATB Otolara kaleko egoitza txukunera pasatu ziren. Han jarraitzen dute oraindik. Urte horietan guztietan ARRASATE PRESSek langile ugari izan ditu. Banan-banan guztiak aipatzeko langile larregi dira, baina ezin ditugu ahaztu hastapenetan (baita geroago ere) aldizkariaren zuzendari izan zen Joxe Aranzabal edo luzaroan aldizkariaren diseinuaren eta itxuraren arduradun nagusi izan zen Goio Arana. Gogoratu beharra dago iraganean ARRASATE PRESSen diseinuak AEBetako Society of New Design (SND)-en lehenengo



Gaur egungo ARRASATE PRESSko lankideak: goian, Iker Barandiaran, Xabi Urzelai eta Alex Azkarate; behean, Sergio Azkarate eta Ubane Madera.

1988an aldizkaria sortu zenetik, berau egin duen lantaldeak lau egoitza izan ditu

1993tik aurrera azala koloretan egin dute, eta Quark X Press erabiltzen hasi ziren

saria eskuratu zuela. Munduko egunkari txiki onenen artean geurea aukeratu zuen.

Bigarren milurtekoarekin batera etorri zen Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren sorrera. Iaz, ARRASATE PRESS *Goienkaria*-n barneratu genuen eta, itxura zeharo aldatzeaz gain, kazetariok eta langile guztiok Quark X Press erabiltzen hasi ginen. Era berean, ordenagailu hobekin lan egiten dugu.



100. zenbakia



200. zenbakia




300. zenbakia



400. zenbakia




500. zenbakia




600. zenbakia

KALEINKESTA/ Zela ikusten dozu gaur egungo ARRASATE PRESS?




Gaizka Uribarren

LANGILLIE



Txema Valle

LANGILLIE



Luis Azpiazu

LANGILLIE



Elisabeth González

LANGILLIE



Idoia Zubillaga

LANGILLIE

"Gurago neuen lehengo formatue"

Nahiko finkatute daguela uste dot, baiñe lehengo formatue gehixago gustetan jaten. Ondoko herrixetako barrixek eukittie aberasgarrixte da, eta Txirritolari esker Aramaixoko barri be eukitten dogu. Eguakotxetan goguekin jasoten dot ARRASATE PRESS, hori ez da aldatu, eta eduki aldetik esango neuke herri maillako albistiek ondo jasoten dittuela. Herri maillako albistiek nahiko sinpliek izeten die, baiñe Asteko gaixe-n, adibidez, albistiek ondo lantzen die.

"Euskerie ikesteko baliogarrixe"

Euskaldun barrixok ARRASATE PRESS leiduterakuen praktikau eta hiztegixe hobetu egitten dogu. Albistien gaiñien ezin dot gauza haundirik esan, izen be, gehixetan aldizkarixe goittik leiduten dot. Astekariko atal batzuk mondragueraz idazten dittuzue, eta hori asko gustetan jat. Noix edo noix apur bat sentsazionalistie dala pentsau izen jat. Jentiari oingo astien zein azaltzen dan ikustie gustetan jako, eta ze esaten dauen leidutie, edukixek larregi inporta barik.

"Testu gehixago mondragueraz"

Lehen baiño askoz hobeto ikusten dot oin ARRASATE PRESS. Askoz errexago leiduten da, lehengue nahiko monotonue egitten jaten-eta. Formato barrixe oso ondo ikusten dot, baiñe gaitetan be esango neuke asko irabazi dala. Aspaldixen atal batzuk mondragueraz idazten die, eta hori asko gustetan jat. Kontue da euskalkixen gehixago idatzi beharko litzakela, gutxi egitten da-eta. Baiñe hori ez astekarixen bakarrik, baitte telebisiñuen eta irratixen be.

"Formato honetara azkar ohittu gare"

Lehen baiño gogo haundixaguan jasoten dot oin ARRASATE PRESS. Askoz gehixago gustetan jat, bestiek beste, beste herrixetako informaziñue be jasoten dot-eta. Formato aldaketie hasieran gogor samarra izen zan, baiñe oin askoz be polittague dago aldizkarixe. Honezkero ohittu gare, eta errexago leiduten da. Argazki zaharrak asko gustetan jat, eta, horrez gain zorion agurrak, ezkontzak eta holakuek ikustie be asko gustetan jat. Ez dot uste ezer falta jakonik.

"Formato honekin askoz hobeto"

Aldizkarixe askoz be hobeto ikusten dot oin. Formato aldaketia-kin asko hobetu dau, eta gaixen tratamentuen be hobetu egin da. Lehen, kotilleo gehixago agerketan zan, eta oin, gaixek hobeto lantzen die. Etxien gizonak eta nik, behintzet, lehen baiño gustorago leiduten dogu ARRASATE PRESS. Asteko gaixe leidutie gustetan jat, gaixek ondo landute egoten die-eta. Horrez gain, zorion agurren orrixte be gustetan jat. Ondo dago mondragueraz idaztie, ez daixen galdu.




Itxaki Mendiguren idazlea ere izan zen ARRASATE PRESSko zuzendari.



Aldizkaria egiteaz gain, jardunaldiak ere antolatu izan dituzte.



Aurpegi ezagun ugari igaro dira gure aldizkaritik.



Zenbaki bat bukatu bezain laster, hurrengoa prestatzeko batzarra egiten da betidanik.



Azkenaldian aldaketak nabarmenak izan dira, formatuan, batez ere.

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Aste honetako galdera: Zer izen du argazkian azaltzen den etxeak?
Eta zein kaletan dago etxe hori?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Ondosol ekilore-olioa
litroko botila

0,86 € 143 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIBEL OLABErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maribel!
Galderaren erantzun zuzena:
Erdiko kale eta Iturriotz kaleen artean.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko demografia orain dela bostehun urte

JON ANDER RAMOS

Aurreko astean ikusi genuen moduan, altzairuak berebiziko garrantzia izan du Arrasateren garapen ekonomikoan. Herriko biztanleriaren gainean dauden datuek argi eta garbi azaltzen dute Arrasatek XVI. mendean zer-nolako garrantzia izan zuen Gipuzkoan.

XVI. mendean, arrasatearrak dagoeneko ez zeuden bandoetan banatuta, Gipuzkoako probintzia egituran ondo integratuta zeuden. 1535eko erroldaren arabera, Arrasatek 613 bizilagun zituen, kale, errabal eta elizateetan banatuta. Bizilagun haiek juridikoki Arrasateko alkatearen mende zeuden.

Arrasateko biztanleak horrela zeuden banatuta: errabaletan biztanleen %25 bizi ziren, elizateetan, berriz, %19 eta biztanle gehienak, hau da, %59, alde zaharreen bizi ziren.

1935eko erroldako datuekin jarraituz, ekonomikoki Arrasateko biztanleria hiru taldetan bana daiteke: batetik, *abonatuak* deritzenak egongo lirateke. Zelanbait esatearren,

1535eko erroldaren arabera, Arrasaten 613 lagun bizi ziren, kale, errabal eta elizateetan banatuta

Arrasateko aberatsak izango lirateke horiek, 90.000 marabedi baino gehiago izango lituzketenak. Talde hartan ehun arrasatear inguru izango ziren; bigarren taldean, bestalde, 90 bizilagun inguru egongo lirateke. Horien aberastasuna 45.000 eta 90.000 marabedi artean egongo litzateke; eta, azkenik, gainerako bizilagunek, %70ek, hain zuzen ere, hirugarren taldea osatuko balute ere, guztiak ez zeuden egoera berean. Bazeuden jabetza gutxi batzuk zituztenak, baita ezer ere ez zeukatenak ere. Datu apagarri-moduan, Esteban de Garibai kronista mondragoetarraren familia bigarren taldean koka genezake; izan ere, ondo bizi ziren, baina ez ziren aberatsak.



1535eko erroldaren arabera, biztanleen %59 alde zaharreen bizi ziren.

ARRASATE PRESS


ETXEAN NAHI DITUGU!




JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRA



JOSU ARKAUZ



UNAI PAROT



AMAIA ARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



ENRIKE LETONA




JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



TXUS GOIKOETXEA



ERREFUXIATUAK

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko urriaren 4a / 40. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Hogeita zazpi kiloko perretxikoa Alzagan

UBANE MADERA

Horrelako perretxikorik ez da ez askotan ikusten gure mendietan. Honako hau Alzaga auzoko zelai baten hartu zuten joan den astean. 27 kilo pisatzen du, eta handiagoa ere ei dago.




UBANE MADERA

Beste perretxiko handiago bat ere badago mendian.

Halaxe kontatu digu Felipe Zabala altzagarrak. Hark topatu zuen perretxikotzarra joan den eguean. Non? Bada, Alzaga inguruan, baina ez edonon. Izan ere, eta nahiz eta perretxikoaren itxura enborren baten jaiotako perretxikoarena izan, Felipe Zabalak behin eta berriro esan digu landan, zelaietan, topatu duela, belar artean. "Ez dakigu zer perretxiko mota den, ezta jangarria den ere. Galdetzen ibili gara, liburuetan ere begiratu dugu, eta oraindik ez dugu asmatu".

dezente gehiago izango ditu, hamar kilo gehiago, akaso". Seguruena, hura ere etxera ekarriko duela kontatu digu Felipek, baina horretarako laguntza behar du. "Bestea bi lagunen artean hartu genuen".

Orain, garrantzitsuena jangarria den edo ez jakitea da. "Ona bada jan egingo dugu, eta bestela, bota". Hortaz, ona bada, Alzaga gain baserrikoek badute, bai, tortillak betetzeko jaki goxoa den bora luzerako.



Jai giro ederra Txirritola Egunean

Jende dezente batu da asteburuan Txirritola Euskara Elkar-teak antolatutako jaietan. Argazkiak herri bazkaria erakusten du. Hirurogei lagun batu ziren bazkarian, eta trikitilariak, txiste kontalariak eta eguraldi onak lagunduta, giro bikaina izan zuten herritarrek. Eta, biribiltzeko, Amaia Zubiriaren kontzertuak gozatu zuen Aramaioko gaua.

HERRITARREN HITZA / Arantza Ibane - Langilea

OUTSIDER-AK DONOSTIAN

Irail aldera urtero izan ohi dugu zinea eta glamourra ikusteko parada Donostian. Nik zinea betidanik izan dut gustuko, ez da moda kontua. Beste istorio batzuetan murgiltzeko aukera izaten dugu; batzuetan ez dute norberarekin zerikusirik, bestetan ordea, norberaren bizipenekin antzekotasun handia dutenak hor, gure begien aurrean, daude pantailaratuak. Bi aukerak dira erakargarriak niretzat.

Ez dut Donostian izandako filmik ikusi, baina badira bi ikusteko amorratzen nagoenak. Bata Adolfo Aristarainen *Aguares Comunes*; berea den *Un Lugar En El Mundo* nire

gogokoenen artean dago. Gehienetan, ezak kreatibitatea bultzatzen du eta hori nabaria da Argentinan. Gauzak aldatu guran dabilta, nonbait. Kontrakoa berriz, Hollywood-en, diruz gainezka eta begira zelako filmak...

Gustura asko ikusiko nukeen beste filma *Together* txinatarrak da, Chen Kaige-rena. Xarman-garria dirudi: Zuzendariak eginiko adierazpenak esanguratsuak, oso. Ez dakidana, areto komertzialetara ailegatu-



"Out harrapatu ninduten Langeren adierazpenek"

ko den da.

Filmez gain, bi *outsider* izan dira Donostian. Bata Dennis Hopper eta bestea, Jessica Lange. Benetan *out* harrapatu ninduten azken horren adierazpenek. Ederra eta argia izateaz gain, balentria ere baduela erakutsi du. G.W

Bush gorrotatzen duela, AEBetako administrazioak ez duela bere errespeturik merezi eta askotan lotsa sentitzen duela ipamerikarra izateaz. A ze nolako adierazpenak...adore-

tsua emakumea! Ezkerrekoak izan arren, famatu askok ez dute horrelakorik aitortu. Aktore ona? Bai, baina pertsonalki, Lange anderea, *chapeau*. Ay Jessica, zure herrikideen laurdena sikiera, horren kritikoa izanen balitz, eta espainolak eta euskal herritarrok...baina badakizue, banu, balego eta balitz... Aizue, pentsatzen hasita ez al duzue uste arestian aipatutako aurtengo Zinemaldiko bi filmen izenburuek zer edo zer egiten hasteko balioko liguketela Euskal Herrikooi?

Ondo pasatu Maritxura zoaztenok eta, gainontzekook ere bai, jakina!

LABUR

Arrakasta domekako mendi ibilaldian

Pozik dago Orixol taldea domekako mendi ibilaldiak lortutako arrakastarekin. 125 lagunek parte hartu zuten. Jende dezente da horrelakoetarako. Eta, egun osorako ibilaldia izan arren, batzuek eguerdi parterako bukatuta zuten bidea. Gazteen artean, Aitor Arana eta Aitor Unamuno aramaioarrak eta Harkaitz Zamakona otxandioarra izan ziren lehenengoak. Nagusien artean, berriz, Markel Ormaetxea. Gainerakoak, gehienak 14:30 eta 15:30 artean iritsi zirentz baina izan zen arratsaldeko bostetan heldu zenik ere.

Ipuin kontalaria eta Bolo Txapelketa Untzillan jaietan

UBANE MADERA

Etxaguengo jaien ostean, Untzillakoak datoz. Gaur hasi eta domekara arte iraungo dute. Besteak beste, XXI. Bolo Txapelketa izango da bihar, zapatua, gauean.

Arratsaldeko zazpitan hasiko dira Untzillako jaiak, kanpai errepika eta etxafuegoekin. 21:00etan, berriz, auzotarrek afaria egingo dute, eta afalostean bertso saio bikaina izango dute Sebastian Lizasorekin eta Angel Mari Peña-garikanorekin.

Zapatuan, berriz, meza izango da eguerdian, hildako auzokideen alde; gero, auzoko trikitilariak bazterrak alaituko dituzte.

Arratsaldean segituko du festak, bereziki, umeendako. Masi-klownd Ikimikilip izeneko ipuin kontalaria arituko da lehenengo, eta gero, jolasak izango dituzte. Gau partean, 22:30ean, berriz, dantzaldia izango da Untzillan, Lotxo taldearekin. Eta gauerditik gertu, 23:00etan, hain justu ere, Murumendi elkarteko XXI. Bolo



ARTXIBOA

Denetarik izango da Untzillako jaietan.

Txapelketa, sari ederrekin.

Esan beharra dago, era berean, gauean buzkantzak eta ogitartekoak izango direla jaizaleen gosea baretzeko.

Eta, azkeneko egunean, dome-

kan, hasteko, meza nagusia izango dute, 12:00etan, Santa Agedako abesbatzarekin. Gero, dantza taldeak saioa eskainiko du. Eta, bukatzeko, 13:00etan, *Bermut* dantza izango da, Gardokirekin.



Jaiak bizi-bizi Etxaguenen

Asteburuan jaietan murgilduta ibili dira etxaguendarrak; giro politean, gainera. Egunez, adibidez, txapelketak izan zituzten giroa berotzen. Argazkian, Briska Txapelketako irabazleak ditugu: lehenengo bikotea Txomin-Arregik eta Jose Mari Mendialduak osatutakoa izan zen, eta bigarrena, Maria Luisa Etxebarriak eta Milagros Gonzálezek osatutakoa. Zorionak, bie!

BOTEPRONTOAN/ Jesus Zabala · Andra Mari Kofradiako presidentea

“Kofradia existitzen dela erakusten duten lehenengo paperak 1562. urtekoak dira”

Aramaion badago bost gizaldi baino gehiago dituen talde bat: Andra Mari Kofradia. Ibarreko aitoren semeek sortu zuten, herritarren artean elkar ezagutzea eta harremanetan egotea benetan gaitza zenean. Hala kontatu digu Jesus Zabalak, kofradiako presidentea. Alzagarra da, nahiz eta aspaldian Ibarren bizi:

Noiz sortu zen taldea?

Kofradia existitzen dela erakusten duten lehenengo paperak 1562. urtekoak dira. Hortaz, kofradia dezente lehenagokoa zen. Elizaren paralelo hasitakoa da kofradia.

Zelan sortu zen?

Orain dela lauzpabost gizalditako kontuekin gabilta. Uste dut orduko jendearen premiak bestelakoak zirela gaurkoekin konparatuta. Ibarreko aitoren semeek sortu zuten. Garai hartan, auzoen arteko komunikazioak ez ziren gaur egungoaren modukoak; herritarrek ez zuten harremanik euren artean, baserritarrek lanean ibiltzen ziren etengabe... Hortaz, nire iritziz, sortu zen euren artean harremanak sortzeko; hain zuzen ere, Ibabeko Sortzez Garbiarengan zuten debozio eta babespean sortu zen. Gaur egun, aldatu da esanahia. Baserrita-



“Sortzez Garbiaren kofradia da. Irailaren bigarren domekan dugu ospakizun eguna”

ren artean oraindik badira kofradiakoarekin lotura duten ohitura arrastoak.

Zein amabirjina duzue?

Ibabeko Sortzez Garbia. Urtean behin izaten dugu ospakizun eguna; lehen, irailaren 8an izaten zen. Guk iraileko bigarren domekan egiten dugu. Eta oraindik ere antzina-antzinako ohituraren bat egiten segitzen dugu: lehengoek goizean *meza txikia* izaten zuten, eta, jakina, Jauna baraurik hartu behar izaten zenez, gosaldia barik etorri beharra zegoen. Eta, meza horren ostean salda hartzen zuten gosari moduan, izan ere, gero Meza Nagusirako eta Batzar Nagusirako gelditu behar izaten ziren. Hori gordeta dago.

Zenbat zarete?

185 anaikide. Horietatik gehienak herrian bizi dira eta besteak kanpoan. Herrikoek hiru euroko

kuota ordaintzen dute eta kanpokoek sei eurokoa. Izan ere, kanpokoak libre egoten dira egin beharreko zerbitzuetatik. Esan beharra dago, baita ere, auzo bakoitzean mezulari-diru biltzaile bana dagoela (Ibarren bi); urtero aldatzen dena. Haren lana da batzarren, hileta elizkizunen... berri ematea eta kuotak batzea.

Urtean zer egiten duzue?

Jaiegun bat (lehen aipatutakoa), eta kofradiako kideren bat hiltzen denean, haren izenean meza egiten dugu. Hileta meza ostean zerrenda pasatzen da, ohitura irajarratuz. Bestalde, gu arduratzen gara elizako mantentze lanez: konponketa lanak... Orain, adibidez, hezetan eragindako kalteak konpondu gura ditugu, baita teilatua ere, aurrekontuaren arabera, baina ahalik eta lasterren.

Beste zerbait esan gura baduzu?

Datu interesgarri batzuk daude. Adibidez, ermita 1707an egin zuten, lehenagoko ermita baten gainean; sakristia 1772an eta goiko sala 1784an. Gainera, kanpai-horma motako kanpandorra du. Bestalde, Ibaberen baxera ere badugu; orain kanpoko museo batean dago, baina, ahalik eta lasterren ekartzeko asmoa dugu.

“Komunikazio modu berezia dago: auzo bakoitzean mezulari-diru biltzaile bana, Ibarren bi”

OHARRAK

ARGIA MOZTUKO DUTE


Aramaioko Udalak aditzera eman digunez, datorren astelehenean, hilaren 7an, argin-darra moztuko dute goizeko hamarretatik eguerdikoko ordu bata eta erdiak arte. Eta gaineratu digu argi mozketa ibar osoan egingo dutela, Oleta auzoan izan ezik.

PERTSONA BEHARRA

Pertsona bat behar dute Aramaioko Correosen ordezkapen bat betetzeko. Gidabaimena eta automobila izatea derrigorrezkoa da lan horretarako. Interesa duzuenok, deitu lehenbailehen: 945 44 53 71 telefono zenbakira.

ZERGAK

Martitzenean ireki zuten hiri-lur izaerako, landa-lur izaerako eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergak ordaintzeko epea. Azaroaren 29an itxiko dute borondatezko epea; horrenbestez, hortik aurrera ordaintzen dutenei %20ko ginkarguarekin kobratuko diete. Ordainketa helbideratuta dutenei haiek emandako kontu zenbakia- ren bitartez kobratuko diete; bestelakoek Vital Kutzak Aramaion duen bulegoan ordaindu beharko dute.



ARRASATE
Otalora kalea
Tel.: 943 79 82 68

BERGARA
Barrenkalea 35
Tel.: 943 76 03 98
Irala 5
Tel.: 943 76 27 16

Bertan egotea bezala!

Maritxutako saio bereziak GOITBn

XELEBERRI

- Martitzena, 20:30ean eta 21:15ean
- Eguaztenean, 21:15 ean
- Aurkezleak: **Kepa Errasti** eta **Oihan Vega**





ARRASATE PRESS

Janzi dotoreez gain, Maritxutan maiz ikusi izan ditugu antzinako ibilgailu bereziak; denetarik izan ohi da, gainera: diligentziak, motorrak, eta zela ez, gehienok ezagutzen dugun automobil eder hori!

Bagoaz, bagoaz... Maritxuren iturrira!

Dena gertu dago beste urtebetez Maritxu Kajoi gau ospatzeko

UBANE MADERA

Hogeita seigarren urtez, Maritxu Kajoi txikiteroen ama ondartzeko gaua iritsi da. Eta hogeita seigarren aldiz, dotoretasuna gailenduko da Arrasaten.

Horiek dira jai berezi horren ezaugarri nagusiak; horiek eta jendeak dion leialtasuna. Izugarriko leialtasuna. Jeneralean, nor bere burua mozortzearekin zerikusia duten jaietatik aldentzen diren horietako asko leialak dira Maritxurekin. Dotoretasuna gorroto duter asko ere leialak dira Maritxurekin.

Eta, behin jai ezagututa, urtero-urtero geroago eta urrunagotik etortzen direnak ere leialak dira Maritxurekin.


Horiek guztiak batuko ditu gaur, egubakoitza, txikiteroen amabirjinak; behingoz, ume, gazte eta nagusi, denak batera ibiliko dira festan.

*Behingoz, ume,
gazte eta nagusi,
denak batera ibiliko
dira festan*

Donostiako Zinemaldia bezala, gutxi batzuen artean asmatutako jai, gaur egun, guztiona izatera iritsi da. Gutxi daude horrelakoak; ea, bada, geratzen direnak gordetzeko gai garen.

Hortaz, segi dotore jantzen, jaiaz gozatzen, eta zain dezagun Maritxuren misterioa!

*Zinemaldia bezala,
gutxi batzuen
artean asmatutako
jai da*



KARTELA: KEPA ALTUBE

Azkenaldikoari segituz, aurten ere Kepa Altube "Kopik" egin du aurtengo azala.

Eskapularioa, Maritxu Kajoin eroan beharreko derrigorrezko osagarria

Eskapularioaren leloa garaian garaiko gertaerekin eta pertsonaiekin lotuta egoten da



Maritxu Kajoi Egunean dotore-dotore kalera irten eta jaiatzeko gura duenak ezinbesteko du eskapularioa lepotik zintzilikatzea. Gainera, parekorik ez duen jai hori aurrera ateratzen duen Komisiñuek bere eginbeharra finantzatzeko ezinbesteko du eskapularioak saltzea.


Jaiaren beraren elementu kla-

siko bilakatu den eskapularioa, Maritxuk berak egiten dituen mirariak bezalaxe, garaian garaiko gertakizunekin edo Maritxuren inguruan lan egiten dutenenekin lotuta egoten da.

Eskapularioaren aurreko aldean Maritxu Kajoi agertzen da beti, eta atzeko aldean bertsoak, marrazkiak eta argazkiak tartekatuta izan

*Azkeneko urtea
notiziaz beteta
euskaldunen aurka da
hasi lasterketa
epaile batzuk diote
handia kopeta
jaiak gozatu oraindik
legalak dira eta*

dituzte. 1981ean, On Jose Luis Iñarra zendu zeneko bosgarren urtemuga gogoratu zuten; 1984an, 1977ko kartelaren egile izan zen Jagoba Arantzabal; 1985ean eta 1986an, komikiak sartu zituzten; 1987an, Txarra gogoratu zuten. 1989an, mondragoetarren eta zigorrrolarren tirabirak pil-pilean zudenean, Maritxu Kajoi astoa Zigorrrolara bidali zuen; 1992an, Jose Luis sakristaua omendu zuten; 1994an eta 1995ean, parrokiako lanak gogorarazi zizkiguten; 1998an, HBko mahai nazionalaren espetxeratzea eta Egin-en itxiera salatu zituzten; 1999an eta 2000n, Yanyo eta Rufino omendu zituzten, hurrenez hurren.



Maritxu Kajoi 2002. Egitarau ofiziala.

URRIAK 4, EGUAKOTXA, MARITXU KAJOI (Golxetik golxera)

08:00 Apurtxo bat espabiletan hasteko etxaleruek.
10:00 Mundrauen hondartzak ez daukeule eta, Donostiako Santa Klara uhartie inbadiruteko asmuaz Maritxu Kajoi komisiñuek mahaixe jarriko dau herriko plazan gaztiekin alistau daittezen. Bakotzak bere kantiplorie eruen daixela, ardaue Maritxuk ipiniko dau eta.
17:00 Kale animaziñuaz gozatu ahal izengou "Auskalo" taldien eskutik.
18:00 Erraldoi eta kilikixek gaiteruen laguntzaz alaituko ditue herriko kale eta abenidak.
19:30 Maritxun txarangiek kaliek dantzan jarriko dittu Txumalen zuzendaritzapelen.
20:00 Maritxuri eskeintza eitteko, Atxabaltako Jardinetako lora ederrak harrapetako helburuaz espediziñuek urtengo dau Arbolapetatik.
20:30 Datorren urtien oin etxetik falta dien danak etxien egon daittezen Maritxuri einddeko lore eskaintza.
21:00 Munizipalak gabez lan eitten hasi diela eta, Udaletxeko arkupeletan herri afaixe eingo da langile sakrifikaue honein omenez (txartelak udaltzainguen bertan erosi ahal izango die).
00:00 Herriko plazan dantzaldixe "Akelarre" taldiaz. Ordu berien eta Seberon triki berbenie "Luhartz" taldiaz.
02:00 "Herri kirolak" eingo die. Perurena aitasemeen saioe ikusi ostien, primizia mundialen modalitate barri bat aurkeztuko da: "Buitzaketa herrikoia" eingo jako Ertzain Etxiari Ziorlaraino eruen arte.


ABIXUAK

-Egun honetan eskapulaixue zintzilik dozuela eta dotore urten bie da.
-20 pertsonatik gorako kuadrillie dozuenok, gogoratu 943 765340 telefonora deiketie komeni jatzuela (Agustin Iturtzaetageatik galdetu); batera ibiltteko baimena euki daizuen, bestela igual ezin izengo dozue ta juergie bukatu.
-Santa Klarako inbasiñuek frakasau eitten badau, areie botako da Deba errekan Zerrajerako etxien parien.
-Eta zela ez! Ezin jua gure herriko preso, deportatu eta errefuxiatuekin akordau barik. Datorren urtien Maritxu danok batera ospatuko!



JON BEREZIBAR

Egubakoitzean barik, zapatuan izan da aurten Nobenaixua, baina, betiko moduan, jaki goxoz beteta.




ARRASATE PRESS

Irribarreak izaten dira nagusi Maritxu gauean.



ARRASATE PRESS

lazko mirariak ura ardo bihurtu zuen; aurtengoa zer izango ote...



JON BEREZIBAR

Bat baino gehiago ibili zen herriko plazan gazta eta ogia jaten eta ardoa edaten, askaria egiten.



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrieras, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.

Maritxu Kajoi zoriontsuak
opa dizkie bere bezeroei

Zarugalde 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91



ARRASATE PRESS

Akaso, jende guztia ez da dotore-dotore jantziko Maritxutan, baina eskapulariorik ez da falta inoren lepoan.




ARRASATE PRESS

Jakina, Maritxuren esanari jaramon eginez dotoretasuna ederto zaintzen dute gehienek.



ARRASATE PRESS

Giroa alaitzera datozenak ere poz-pezik ageri dira Arrasateko jai berezi horretan.



ARRASATE PRESS

Lotsa txikiagoa izaten da Maritxutan, eta ia denak daude argazkirako prest.

JAIK/Maritxu Kajoiaren historia

Maritxu Kajoi: dotore jantzi eta parranda egitea baino askoz gehiago

JON ANDER RAMOS

Jaiak ospatzea herri guztiek duten ohitura bat da. Kontua da askotan ahaztu egiten dugula zer ospatzen dugun, edo beste askotan zergatik ospatzen dugun jakin ere ez dakigula. Ondorengo lerroetan Maritxu Kajoi jaiaren nondik norakoak dauzkazue.

"Maritxu Kajoi gaua da mondragoetarrak dotore-dotore jantzen diren egun bakarra". Esaldi hori behin baino gehiagotan entzun behar izan dute mondragoetarrek.

Esaera hori alde batera utzita, Maritxu Kajoi istorio propioa dauka. Arrasateko amabirjina ezagun horren historia 70eko hamarkadan hasi zen. Garai hartan, txikiteoan egiteko ohitura handia zegoen. Astean barrena koadrila asko ibiltzen zen tabernaz taberna txikiteoan, eta abesteko ohitura handia zegoen, tabernetako giroa alaitzeko. Egun, gutxi dira astean barrena txikiteoan ibiltzen direnak, eta are gutxiago txikiteoan dabiltzan bitartean abestu egiten dutenak.

Orduko hartan, adin askotako jendea izaten zen taberna berean: koadrila gazteak, nagusiagoak baita zaharren koadrilak ere. Zaharren koadrilen artean bazeagoen Pepe Txantxote izeneko herritar alai eta saltsero bat. Muleta batekin egiten zuen txi-

kiteoa, eta koadrila askok eza-gutzen zuten. Askok Txantxote ikusten zutenean tragoa hartzea gonbidatzen zuten. Txantxotek edalontzia esku artean hartu eta, "Maritxurengatik!" esanda txikitoa hartzen zuen.

Behin, koadrila bateko gazte batzuk, Maritxu Txantxoteren emaztea zelakoan, adarra jotzen hasi ziren. Txantxotek, zalantzak argitzeko, koadrilakoak parrokiako ate nagusira eramane zituen, eta zera esan zien: "Ideiarik ere ez daukazue. Zuen aurrean daukazuen amabirjina hori da Maritxu Kajoi, txikitero guztien amabirjina!". Horrela egin zen ezagun Maritxu Kajoi.

Jendea, apurka-apurka, Maritxu Kajoi amabirjina zelari omen-du pentsatzen hasi zen. Onena jai bat egitea zen, eta ideia horrek gero eta indar handiagoa hartu zuen. Maritxu Kajoi jai egiteko lehenengo proposamena 1975ean egin zuten. Hala ere, 1975ean eta 1976an hainbat ezbehar izan ziren eta jai atzeratzea erabaki zuten. Lehenengo Maritxu Kajoi 1977an ospatu zuten. Urriaren 5ean izan zen jai (egubakoitza), baina lehenengo Maritxu Kajoi hartan ez zuen jende askorik parte hartu.

Jende askok zera galdetzen du: "Maritxu Kajoi zergatik ospatzen da urriaren lehenengo egubakoitzean?". Erantzuna erraza da: urriaren 5a Errosarioko Amabirjinaren Eguna delako. 1977ko urriaren 5a egubakoitza izan zen,



MARITXU KAJOI LIBURUA

Hogeita bost urte egin eta gero, argazki asko geratzen dira Maritxu Kajoiaren lekuko

eta hurrengo urteetan jai asteen barrena ez egitearren, egubakoitza egun aproposa zela erabaki zuten, eta urtero urriko lehen egubakoitzean ospatzen dute jai.

NOBENAIXUE

Maritxu Kajoi Komisiñuak Maritxu Kajoi Eguna baino astebebe lehenago Nobenaixue ospatzen du. Maritxu Kajoi jai ospatzeko

atzerako kontaketa hasi dela iragartzeko egiten dute Nobenaixue.

Nobenaixuen, Maritxu Kajoi amabirjinaren azpian, Komisiñuak, umore ezin hobearrekin, gazta, ogia eta ardoa banatzen die hurbiltzen diren herritar eta kantopar guztiei. Nobenaixue, lehenengo, 1987an egin zuten. Orduetik 1998 urtera arte zapatuan egin zuten. Azken urteotan, herriz,

egubakoitzean egin dute. Aurten, hasierako ohituretara itzulita, zapatuan egin dute Nobenaixue. Herritarrei ardoa eta gazta musutruk banatzeko ohitura Lakuntzatik hartu zuen Komisiñuak. Nafarroako herri horretan ohitura jator eta adiskidetsu hori dute herriko jaiak datozela iragartzeko, eta Komisiñuari ideia ezin hobea iruditu zitzaion.

Atzera begiratzeko jai

Maritxu Kajoi atzera begiratzeko jai da. Lehen baino txikiteo gutxiago egiten da eta dagoeneko tabernetan jendeak gero eta gutxiago abesten du. Normala ere bada. Lehen, tabernetan ez zegoen musikarik, eta giroa berotzeko ez zegoen abestea modukorik. Zaharrek esaten dutenez, egungo gazteek apenas dakite abesti bat edo beste. Maritxu Kajoi abestia izango da oso osorik mondragoetar gehienek jakingo dugun abestia, eta ez dezagula ahaztu! Bestalde, herritarrek behin eta berriro esaten dute jai asko aldatu dela. Hasierako helburua lehengo traje zaharrekin kalera

irtetea zen, baina gauza guztiak aldatzen diren moduan, jaiak eta jaietako asmoak ere aldatu egiten dira. Jendeak gutxitan izaten du horren dotore jantzeko aukera, eta aukera daukatenean ez dute arropa zaharrekin egin gura (nahiz eta askotan arropa berriekin baino dotoreago egon). Lehen, gauzak errazago egiten ziren, kontu txikiagoarekin, baina, seguru asko, mimo berarekin. Orain, diru mordoa gastatzen dugu, baina ez Maritxutan bakarrik, gauza guztietan, horretara ohituta gaude eta. Jaiak aldatu egiten dira, baina ez dauka zertan txarrera izan. Ondo pasatu gaur!



MARITXU KAJOI LIBURUA

1976an ez zuten jaiak ospatu, baina asko topa egin zuten Maritxuren omenez.

ERRETRATUZAHARRA

Maritxutako
dotoretasuna
agerian

Maritxu Kajoi Egunean, ezin bestela izan, eta tarte hau ere txikiteroen amabirjinari eskaini diogu.

1985era jo behar dugu oraingo asteko argazkiaren jatorriaren berri izateko. Eta, Maritxutan ohitura bilakatu zaigun elementua dugu berbagai, baina apur bat aldatuta. Ikusten duzuen moduan, gaur egun erabiltzen duten automobil dotorea beharrean, diligentsia ikusgarria ateratu zuten urte hartan. Honako hauek agertzen dira argazkian: zaldia eusten Luis Pagoaga; diligentsiara igota, ezkerrean Juan Bautista Agirre dago eta eskuman, Rafa Etxabe; behekoa Fernando Arana da eta, atzean, antzinako gizon dotore garrantzitsu horietako bat izango balitz bezala, ordulariari begira dagoena Agustin Ibarluzea Txispas da.

Urte hartako miraria *hotza* izan zen benetan: elurrak zuri-zuri utzi zuen Arrasateko Erdiko kalea. Gainera, miraria egin ahal izateko, teilatuan ipini zuten ohola erori egin zen.



Feliciano Arantzabal behean zegoen eta ez zuen tarte harrapatu. Esaten duten moduan, orduko mirari handiena ezer txarrik ez gertatzea izan zen..

Mirarien gainean berba egiten hasita, aipagarria da, esaterako, 1981ean egin zuela gure Maritxuk aurreneko miraria. Iturriko ura ardo

beltz-beltz bihurtu zuen. Horrenbeste ikusmira piztu zuen mirariak, neska-mutiko ugari gerturatu zen ardo probatzera. Azkenean, Komisiñoko kideek, hari aurre egiteko eta, bereziki, zenbait gurasoren haserreak baretzeko, eten egin behar izan zuten ardo jarioa. Iaz, jaiaren 25. urteurrene-

an, amabirjinak botererik galdu ez duela erakusteko-edo, urte hartako miraria errepikatu egin zuen, eta iturriko ura berriro ere gorritu zuen.

Argazkia eta informazioa: Maritxu Kajoi, 25 urte liburu
Urtea: 1985

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Jaiak ere
aldatu egiten
direla!

ARRASATE PRESSko ale berezi honetan Maritxuri begira jarri gara. Normalean, etxe, kale eta auzoak zelan aldatzen diren ikusten dugu tarte honetan, baina oraingoan jaiak ere dezente aldatzen direla ikusteko balioko digu. Diotenez, Maritxuko jai denboran gelditu egin beharko litzateke. Horretarako, baina, parranda traje zaharrekin egin behar.



≈ 1980 Orain dela 20 urteko argazkiek gauza asko argitzen dituzte. Emakume batzuk zuriz jantzten ziren, eta gorbata gutxi ikusten zen.



1997 Orain, gizonezkoek ez dute bizarrik eramaten, eta lore gorriak ere protagonismoa galdu du. Trajeak ere berri-berriak izaten dira.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



*Negu honetan zure
oinak janzteko behar
duzun guztia....*

Beatriz

Oinetakoak


Erdiko kalea 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33



Azkar irekitzen diren ate
biribilduak



Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



Egur antzeko panela: Bukaera egur antzekoa
Kanpo txápa aluminiozkoa

Garajeko atea
Burdinazko pertsianak
Automatismoak
Ate sekzionalak
Konponketak
Urrutiko agente tresna
homologatuak

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17
110 Postakutxa • ARRASATE
jubarateak@euskalnet.net

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

Orain Opel-en,
BEZa ez da seriekoa.


**- %16^{KO}
BEZ**

Corsa Diesel /Astra Diesel

Orain OPEL kontzezionariotan nahi duzun Corsa Diesel edo Astra Diesela erosterakoan, BEZaren parekoa den deskontua duzu.

Oraintxe etorri zure OPEL kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.



Eskaintza hau 2002ko urriaren 31 arte luzatuko da stockean dauden Corsa diesel eta Astra diesel automobiletan, Caravan, Coupé eta Cabrio modelook izan ezik. Promozio honen deskontua, automobilaren prezioa gehi fabrikon erantsitako aukera librean prezioekin kalkulatu da (bi kasuetan zerga eta garrairik gabe). Informazio gehiago, zure OPEL kontzezionarioan.

Giauto

San Andres auzoa, 10D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE